

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2022-ABENDUA-445.ZENBAKIA

# KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



ANJEL LERTXUNDI

**AMA  
HIZKUNTZAN**

**ANORGA TXIKI, S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Oria etorbidea, 4  
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com  
 www.cristaleriaanorgatxiki.com  
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO  
 943-83 00 34  
 autolan13@hotmail.com



**AUTO - LAN C. B.**



**ARDORA**  
 arraindegia

Eusko Gudari, 4  
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52  
 ardoraarraindegia@yahoo.com  
 ORIO

**arkaitz taberna**  
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terniza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

**azkue**  
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7  
 AIA-ORIO  
 943-83 51 86

**azkue**  
 auto

Olaskoegia z/g  
 AIA-ORIO  
 943-13 04 38

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

24orduko zerbitzua

iglesiascerrajeros@yahoo.es  
 www.iglesiascerrajeros.com  
 Erribera kalea, 14 · ORIO  
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

**fontana iturgintza**  
 iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa  
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arantzale kalea, 3 · ORIO  
 fontana-jul@hotmail.es  
 www.fontaneria-fontana.com  
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

**Joseba AROZTEGIA · CARPINTERIA**

ATEAK  
 ZOKALOAK  
 ARMAIRUAK NEURRIRA  
 LEIHOAK  
 ESKAILERAK  
 AROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427  
 josebaarotza@gmail.com

**KAÏOA**

kaioa\_denda  
 www.kaioa.es





# KARKARA 445

2022-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA



## Aurkibidea

- |   |  |
|---|--|
| <p>5 <b>Iritzia</b> Karkara<br/><i>Anjeli aitortza</i></p> <p>6 <b>Hitz tantak</b> Ahmed Aissa<br/><i>Ibon Aranalde</i></p> <p>8 <b>Izpiak eta hizkiak</b> Aitziber Arzallus<br/><i>Orio morea aldarri</i></p> <p>10 <b>Gutunak</b></p> <p>13 <b>Herrian galdezka</b><br/><i>Zer iruditzen zaizu Gabonetako argiak jartzea krisi energetikoaren garaiotan?</i></p> <p>14 <b>Elkarrizketa</b> Aiora Larrañaga Solaberrieta<br/><i>Anjel Lertxundi: "Haurtzaroa literaturaren iturri garrantzitsua da"</i></p> <p>21 <b>Moila bazterretik</b> Eli Huegun<br/><i>Bertsoa, ebxetik urrun</i></p> <p>22 <b>Akuilua hartuta</b> Juan Zaragueta<br/>Herri Eskolako hezkuntza komunitatea<br/><i>Publikoa, euskalduna eta propioa</i></p> | <p>23 <b>Nire honetan</b> Aitziber Arzallus<br/><i>Mundiala</i></p> <p>25 <b>Ikasleak idazle</b> Lardizabal Herri Eskola</p> <p>26 <b>Erreportajea</b> Aitziber Arzallus<br/><i>Aian, gazteak herria egin nahian</i></p> <p>32 <b>Oroimenaren kutxa</b> Iñaki Iturain<br/><i>Tuberkuloen sendategia Andazarraten</i></p> <p>36 <b>Erreportajea</b> Aiora Larrañaga Solaberrieta<br/><i>Balea arrantza Orioren sustrailetan</i></p> <p>40 <b>Osasuna</b> Garbiñe Larrea:<br/><i>"Osagarritasunaren aldekoa naiz"</i></p> <p>41 <b>Euskara</b> Ane Gurrutxaga Roteta<br/><i>Hitzez ekiteko garaia</i></p> <p>42 <b>Plazan bazan</b></p> <p>44 <b>Zerbitzuak</b></p> <p>45 <b>Agenda</b></p> <p>46 <b>Hasi bertsotan</b> Ibai eta Uhaitz Munduate</p> |
|---|--|

## KARKARA



### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-83 15 27  
karkara@karkara.eus  
www.karkara.eus

### Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga  
Solaberrieta

### Erredaktore taldea

Aitziber Arzallus  
Onintza Lete Arrieta

### Diseinu arduraduna

Ane Azkue

### Publizitatea

Leire Martija

### Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Ahmed Aissa  
Eli Huegun  
Iñaki Iturain  
Garbiñe Larrea  
Ane Gurrutxaga Roteta  
Ibai eta Uhaitz Munduate

### Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)  
Manex Dorronsoro (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

### Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO  
UDALA



## PUBLIZITATEA



%100 etxean egina  
**PIZZERIA**  
**KALETA**

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

**Gabon**  
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7  
943-83 06 09



**Katu**  
**Horia**  
Aibaitaritzza klinika

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**



**GARMENDIA**

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48  
Ibai Ondo, 1 · ORIO  
info@egarmendia.com



**KORTABERRI**  
arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

**ITZIAR**  
**KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO  
943-83 31 03

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO  
(sarrera Arrantzale kaleatik)

943-53 64 94  
697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com  
www.libegarmendia.com



**Kolon Txiki**  
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4  
ORIO  
Tel.: 943-83 00 44

**JARRI**  
**HEMEN**  
**ZURE**  
**IRAGARKIA**




**K·U·K·U·A·R·R·I**  
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08  
Zigordia, 52 behea C · ZARAUTZ  
kukuuarri@kukuuarri.com

**kutixi**  
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



**LASTER**  
**DESATASCOS**

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jarri atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascos.com  
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)



# Anjeli aitortza



KARKARA

**K**arkara aldizkariaren eta Anjel Lertxundiren arteko harremana ez da oraingoa. Aldizkaria 1989ko sanpedroetan aurreneko aldiz plazaratu zenean, *Andu*-ren artikulua bat zekarren. Nola ez, ba! Ahaztu egiten zaigu nondik gatozen, baina, orduan, Anjel zen euskaraz zerbait txukun idatzi zezakeen oriotar bakarrenetakoa. Anduk artikulua hartan hizkuntza bera hartu zuen gaitzat, euskara, eta anekdota polit batzuk kontatu zituen: haurra zeneko garaian herriko neska-mutilek elkarri nola hitz egiten zioten, hika, zuka... Geroztik, askotan izan du tokia Anjelek *Karkara*-n. Bidaide izan dugu istorioak kontatu eta zabaltzeko bidean; euskara landu eta zabaltzeko ahaleginean.

Elkano getariarra leku urrunetara iritsi zen itsasoz, europarrontzat ezezagunak ziren mundu berriak deskubritu zituen. Anjel Lertxundi oriotarrak deskubritu ez, sortu egin ditu mundu berriak. Bere irudimenetik eta bere talentu eta jenio izugarritik hainbeste eta hainbeste istorio atera dira mundura, liburuen bidez. Eta guk Anjelen liburu eta istorioetan askotan aurkitu ditugu aipamen ezagunak: Moxo, Don Andres, Zikinbrillo, Gorriya, Goiko Kale, Aldape baserria, Altxerri kalea... jaioterriko haurtzaroak gogoan utzi zion iruditeria sarri baliatu du Anjelek idatzietan.

Azaroaren 24ko hitzaldi-elkarrizketa Anjel Lertxundiri aitortza egiteko baliatu genuen. Anduk egindako lanaren aitortza, ibilitako bidearena, eta haren balioarena, gure literaturari, kazetaritzari eta, oro har, euskal kulturari egindako ekarpen handiaren aitortza.

Goiko Kaletik joan zen, eta Goenkale asmatu zuen. Oriotik alde egin zuen eta Arralde sortu zuen. Maria Maistrarenean euskararekiko atxikimendua sendotu zitzaion. Eta irakurtzeko grina barruan sartuta joan zen Oriotik aldameneko herrira.

Orain gutxiko *Berría*-ko artikulua batean gogoeta hauxe irakurri genion: "Etikak duintzen ditu gizakia eta gizartea, bai antzinako munduan, bai gaurkoan; eta etikak dio gure gurasoek eta aitona-amonek eman diguten hizkuntzari eustea sakratua behar duela izan". Anduk bidean erakutsi duen konpromisoak eta koherentziak erreferente etiko bikaina bihurtu dute guretzat. Gu ere *sorioneku* gara. Duela bi mila eta gehiago urteko baskoi haiek bezala, zuk ere zure hizkuntzan idatzi duzulako; eta asko eta ondo, gainera. ■

**"GOIKO KALETIK JOAN ZEN, ETA GOENKALE ASMATU ZUEN. ORIOTIK ALDE EGIN ZUEN ETA ARRALDE SORTU ZUEN"**

**IBER glass** 

Automobilaren kristaleria  
Errotulazioa  
Hitzordua 689 34 11 01  
edo LAIARANen



Estropalari, 12

 **LAIARAN**

Gabonetako  
opari bereziak

# Ibon Aranalde

---

**TESTUA:** AHMED AISSA

**ARGAZKIA:** AITZIBER ARZALLUS

---

Bost urte dira Ibon Aranaldek Orioko Pilota Elkartearen gidaritzea hartu zuela Haritz Lertxundirekin batera, baina pilotarako zaletasuna betidanik izan du oriotarrak.

## **Nondik datorkizu pilotarako zaletasuna?**

Zarautzen, La Sallen egin nituen ikasketak, eta han, ohitura handia zegoen pilotan jolasteko. Beti izaten zuen norbaitek pilota aldean, eta eskolara iristen ginenean, klaseak hasi aurretik, pilotan ibiltzen ginen; orduak pasatzen genituen. Gainera, eskolan bazen lagun bat pilota asko bultzatzen zuena eta entrenamenduak eta txapelketak antolatzen zituen. Beraz, pilotan ibiltzen han hasi nintzen, baina lehendabiziko txapelketa Orion jokatu nuen, sanpredo jai batzuetan. Amarekin txapelketa ikustera joan, eta parte hartzera animatu nintzen.

## **Gaztea zinenean, norbait izan al zenuen erreferente?**

Etxean beti jarraitu izan dugu esku pilota. Garai batean, telebistan ez zen pilota ikusteko aukera handirik izaten, ez zituzten gaur egun bezala partidak astero botatzen; baina partida garrantzitsuak bai, buruz buruko finalak eta, eta gogoan dut nola egoten ginen haiei begira. Guretzat erreferente ziren telebistaz ikusten genituen pilotari haiek. Baina ez haiek bakarrik; eskolan ere zaharragoen kontra jokatzeko aukera izaten genuen tarteka, eta hori gauza handia izaten zen guretzat, haiek ere eredu baitziren. Dena dela, pilotan izan dudana erreferenterik handiena, dudarik gabe, nire anaia izan da. Haren partidak ikusiz hazi nintzen, eta bera izan da kirol honekiko zaletasuna barruraino sartu zidana.

## **Nolatan animatu zinen pilota elkartearen gidaritzea hartzera?**

Guk txikitan ez genuen aukerarik izan herriko elkartean aritzeko, ez zegoelako, eta beste herrietara mugitu behar izan genuen: Usurbilera, Añorgara, Tolosara... Horregatik, betidanik ikusi dut Orion pilota elkarte baten beharra. Duela bost urte, jakin nuenean lehengo arduraduna kargua uztekotan zebilela, Haritz Lertxundirekin hitz egin

nuen, eta erabaki genuen elkarrekin hartzea elkartearen ardura. Ilusioz hartu genuen kargua, eta hasieratik, gure helburua izan da umeei eta gazteei pilotan ikasteko eta lehiatzeko aukera ematea. Gainera, irakaslea naizenez, asko gustatzen zait umeei irakastea, eta erronka moduan ere hartu nuen kargua.

## **Kargua hartu zenuenetik bost urte pasatu dira. Orduan zenituen asmoak bete al dira?**

Bai, erabat bete dira. Ez nuen pentsatzen orain adina haur pilotan jokatzeko ikusiko nuenik; besteak beste, Orion kirol eskaintza handia dagoelako eta zaila delako beste kirol batzuekin lehiatzea. Elkartearen zuzendaritzea hartu genuenean, frontoiaren bueltan ez zegoen gaur egun dagoen girorik, gazteek nahiago zituzten beste denbora-pasa batzuk. Orain, aldiz, astean zehar entrenamenduak eta astebururo maila ezberdinetako partidak izaten dira herriko pilotalekuan, eta horrek giroa sortu du. Orain dela bi urte ez nuen berehalakoan pentsatuko orain gauden egoeran egongo ginenik. Ez dakit noraino iritsiko garen, baina, oraingoz, oso gustura nago egiten ari garen lanarekin eta lortzen ari garen emaitzekin.

## **Herrian dagoen kirol eskaintza zabala ikusita, kosta egiten al da haurrak pilotara ekartzea?**

Egia esan, bai, eta entrenamenduetarako eta partidetakako ordutegiak jartzen hasten garenean, kontuan eduki behar izaten ditugu gaztetxoek pilotaz gain praktikatzeko dituzten beste kirolak ere; egokitu egin behar izaten dugu. Zoritxarrez, oraindik ere gu izaten gara besteek jarritakora egokitu behar izaten dugunak, ez daukagulako beste kirol batzuek daukaten indarrak. Hala ere, pozgarria da herrian pilotarako gogoa eta grina badirela ikustea, eta saiatzen gara elkarteko kirolariei behar duten malgutasuna eskaintzen. **Etorkizunera begira, zer erronka ditu pilota elkartek?** Askok gustatuko litzaidake frontoian neska gehiago ikustea. Kostatu egiten zaie etortzea, baina, nire ustez, oso kirol polita da haientzat ere; probatuko balute, gustatu egingo litzaieke. ■■■





# Orio morea aldarri

**ARGAZKIA ETA TESTUA:**

AITZIBER ARZALLUS

Udaletxeko balkoitik 700 ume eta gazte plazan ikusteak zirrara eragiten du, eta horiek guztiak indarkeria matxistarik gabeko herria aho batez aldarrikatzen ari direla jakiteak, are gehiago. Izan ere, Orio ez da salbuespena: hemen ere bizi-bizirik dago indarkeria matxista. Udaleko Gizarte Zerbitzuek emandako datuek garbi erakusten dute hori. Duela bi urte, hamabi biktima artatu zituzten; iaz, hamalau; eta aurten, hamasei. Horietatik hamabik, 25 urte baino gutxiago dituzte — emakumeak eta seme-alabak kontuan hartuta—; hiruk, 25 eta 50 urte artean; eta batek, 50 urtetik gora ditu. Egiturazko arazoa da indarkeria matxista, barru-barruraino sartuta daukagun gaitza, ukitzen duen guztia usteltzen duena. Azaroaren 25ean plazan bildutako ume eta gazte horiek izango ote dira gai lagako dieguna baino gizarte hobea eraikitzeko. ■■■







## Zuzenketa

### ¡ÑAKI ITURAIN

ORIO

Irailako Karkarako *Ijito herria, mundura irekia* artikuluan oker bat agertu zen Pablo Platte jaunari buruz esandakoetan. Ohar hau oker hura zuzentzerako dator, haren senideek horrela eskatuta:

Pablo Platte gazte alemaniarra 1922an etorri zen Oriora, Lehen Mundu Gerran soldadu ibili eta horregatik kondekoratua izan ondoren. Ingeniaria zen eta Orion ehun-fabrika bat sortu zuen (zingilak eta abar). Oso ondo integratu zen Orioko herrian: piraguan ibiltzen zen erriean, bere autoan paseatzen zen, pianoa jotzen zuen Toki Alai eta Salsamendi hoteletan, eta lagun asko egin zituen, tartean Enrike Enbil, eta oriotar gazteak animatzen zituen plaiarioetan jokatzera, bere seme zaharrenaren taldean, Talai Mendi Txikin.

### Mari Domingi eta Olertzero: Laster gara Orion!

#### MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

ORIO

Urte guztian zain-zain izaten zarete. Eta, badakigu, gu noiz agertuko urduri samartzen hasiak zaretela. Pasa diren bi urteak oso bereziak izan dira. Aurten, ordea, berriz ere normaltasunean izanda, betiko moduan egingo dugu Oriora iritsiera. Beraz, lasai!

Beste urteetan bezala, sorginak, Mari, Basanderea, Basajaun, artzainak, ttuntturroak... lagun izango ditugu egiten dizuegun bisitatxoan. 18:00etarako sorginak plazan izango dira, zuen gutunak biltzen (beraz, abenduaren 24rako prestatu zuen gutunak!). Eta, beranduxeago, 18:30ak aldera, gu jaitsiko gara plazara, zakuko kartak jasotzera.

Eta, azalduko gara, iluntasunean, irribarrea ahoan. Pozarren. Beste urte batez, ospatuko dugulako, neguko solstizioan elkarrekin gaudela. Eta alai, zuek ikusteko irrikitan gaudelako. Zuek besarkatzeko gogoz. Gaueko lo goxoan zaudetela, muxutxoak emateko desiatzen. Maite zaituztegu. Eta zuek ere, badakizue, maitatu ahal beste.

### Bazterretan elkar ikusiko gara

#### XALTZERAK TALDE FEMINISTA

ORIO

Martxoan une bateko etenaldiaren berri eman ondoren, Xaltzerak talde feministaren jarduna uztea erabaki dugu.

### "KIMU BERRIAK ETOR DAITEZELA! BAZTERRETAN ELKAR IKUSIKO GARA. GORA BORROKA FEMINISTA!"

Duela zazpi urte loratu zen berriz Xaltzerak eta urte hauetan etengabeko militantzian aritu gara, Orio feminismotik eraikitzeko lanetan. Indarkeria matxista kasuak publikoki salatu ditugu eta Orioko eragileekin eta instituzioekin lanean aritu gara. Hainbat ekimen antolatuta ditugu emakumeon\* ahalduntzerako, ikusarazteko, sartzeko eta gure identitateen inguruko hausnarketarako, baita ohitura matxistekin amaitzeko ere.

Pozik gaude eraikitako guztiarekin, baina talde moduan agur esateko ueña iritxi zaigu.

Mila esker urte hauetan gure babesgune izan zareten guztioi! Kimu berriak etor daitezela! Bazterretan elkar ikusiko gara. Gora borroka feminista!!!!!!

### Urtea ondo amaitzeko, San Silbestre

#### ORIOKO ATLETISMO TALDEA

ORIO

Berriz ere iritsi da urtea gogoz amaitzeko ueña. Abenduak 31n, goizeko 11:00tan hasiko da Orioko San Silbestrea. Jantzi zure erroa erosoena, ala zergaitik ez, mozorrorik dotoreena. Kaleak irribarre handiz eta txalo beroz josi ditzagun denon artean. Azkarrenek saria izango dute, baina gainoerako parte hartzaileen artean ere sari mordo zozkatuko dira.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio





Luistarren banderaren bedekazioa 1947an. MARI KARMEN TELLERIA

Adinaren araberako distantziak osatu beharko dituzte parte hartzaileek. Hona hemen kategoria bakoitzaren irteera ordutegia:

-11:00etan, HH5etik beherako haurren proba: Kutxatik helmugara, 150 metro.

-11:10ean, LH1 eta LH2ko haurren proba: Sarasua erretegitik helmugara, 300 metro.

-11:20ean, LH3 eta LH4ko haurren proba: 600 metro.

-11:30ean, LH5, LH6, DBH1 eta DBH2ko gaztetxoaren proba: 1.700 metro.

## "KALEAK IRRIBARRE HANDIZ ETA TXALO ARTEAN JOSI DITZAGUN DENON ARTEAN"

-12:00etan, helduen proba, buelta txikia bat eta handi bat: 5.000 metro.

### Aian bazegoen gaztedia eta sasoia

#### MARI KARMEN TELLERIA

AIA

Aiako Laurgainen 1947ko ekainean egindako Luistarren banderaren bedekazioa, orain dela 75 urte. Herriko ezkongabeak ageri dira argazkian. Bertan zegoen gaztedia eta sasoia.

Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Luis Palazio, Martin Erreizta Goikoa, Manuel Sagastizabalekoa, Iñisio Landarbide Zar, Luziano Sagastizabal, Iñisio Iriondo, Jose Sarrola, Lorentxo Ibarrola Goikoa, Mariano Landarbidekoa, Gregorio Sagastizabalekoa, Antonio Ibarrola Behekoa, Joxe Mari

Gaztandizabalekoa, Joxe Leon Erreizta Behekoa, Ramon Ibarrola Behekoa, Benito Iturrangoa, Iñaxio Iturrangoa, Joxe Mari Iturrangoa, Joxe Mari Serotegikoa, Antonio Manterolakoa, Joan Manterolakoa, Gregorio Serotegikoa, Don Ramon Zabaleta Arakama Laurgaingo apaiza, bertako eskolako maisua, Pako Ibarrola Behekoa, Joxe Mari Erreizta Behekoa, Joxe Mari Manterolakoa, Antonio Erreizta Goikoa, Joxe Ibarrola Behekoa, Joakin Sarrolakoa, Fermin Palaziokoa, Anizeto Landarbidekoa eta Joan Serotegikoa. Makurtuta: Joan Erreizta Behekoa, Joxe Suigañekoa, Joxe Palazio, Joxe Miguel Landarbide Zar, Felix Beietxekoa eta Prontxio Serotegikoa. ■■■

### JAI OBERRIAK

- **Adriel Alexander Valdivia Benavidez.** Orion, urriaren 5ean.
- **Leia Arrondo Pozo.** Orion, urriaren 10ean.
- **Unax Legorburu Romero.** Orion, urriaren 15ean.
- **Noah Rodrigo Valiente.** Orion, urriaren 21ean.

### HILDAKOAK

- **Ignacio Ayestaran Etxeberria.** Orion, azaroaren 24an. 88 urte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.eus](mailto:karkara@karkara.eus) edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

## OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com  
www.podologia-oinarri.com

## Lizaso Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84  
itzilizaso@gmail.com

## PAKO IMAZ

pertsianak



### PERTSIANAK

aluminioa  
motorrak  
automatismoak  
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01  
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



## MARIJO

ILEAPAINDEGIA  
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO  
943-13 47 29



## Portu

Erretzea - Jatorria

Kazolitat, baserriko oilaskoa,  
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA  
943-89 44 34

## MENDIZABAL AROTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO  
943-83 11 75 · 645 70 84 91  
mendi@arotegi.net



## Sagasti

LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 · Fax 943-53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Eusko Gudari, 7  
20810 Orio

Kalitazteko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com



## Orioko Herri Ikastola

### ORIO GARA

Abeslari kalea, 8  
943-83 47 04  
Fax-a: 943-13 09 38  
orio@ikastola.eus  
www.oriokoikastola.eus

## BODEGON

# Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



## INDO

### Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa

generoa



garraioak



kamarak



ibilbideak

Ubegun industriagunea, 4  
AIA-ORIO  
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

# Zer iruditzen zaizu Gabonetako argiak jartzea krisi energetikoaren garaiotan?




**NEREA ARRIAGA**

"Nire ustez mantendu egin behar dira Gabonetako argiak; ezin da kendu xarma hori. Herria oso sinestuna da, edo Gabonak asko bizitzen dituen herria da, eta nire ustez, argiek egon egin behar dute bai ala bai. Argi horiek kontsumo baxukoak direla? Bada, hobeto, noski. Gaur egun badago horretarako aukera, eta horrelakoak izan behar lukete. Argi motari dagokionez, badakit herri arrantzalea garela, baina ez dut uste arrain itxurako argirik jarri behar denik. Gabonak dira, eta Gabonekin zerikusi gehiago duten argiak jarri behar liratekeela uste dut, ez manta-arrainak eta ganboiak. Ingurukoek ere iritzi bera dute. Bestalde, itsasontziak argizatzen ditugu, gainera, eta hor bai, oso ondo gelditzen dira eta herriari sarrera polita ematen diote".



**MARIA AIESTARAN**

"Gabonetako argiek alaitasuna ematen dute, eta beraz, ez naiz argi horien kontrakoa. Hori bai, energiari buruzko kontuak horrenbeste entzuten ditugu... Gastua izango da argiena. Dena den, uste dut egongo direla kontsumo baxuko argiak, eta horiek jar daitezkeela. Bestela, zer pentsatuko dute argia ezin ordainduta dabiltzan herritar eta familiek? Kanean ez da ikusten halakorik, baina izango dira gaizki pasatzen ari direnak. Gabon argiek alaitasuna ematen didate, baita Gabonek ere, beti familia artean garai politak bizi izan ditugulako. Gure haurtzaroan, hori bai, ez zen izaten halako argirik. Aiako baserri batekoa naiz, eta argiarekin oso pobreak izandakoak gara. Errotatik eta hartzen genuen argia. Asko aldatu dira gauzak orduetik".



**JOSE MANUEL GOZATEGI**

"Nik ondo ikusten dut Gabonetako argiak jartzea, kaleari beste bizitasun bat ematen diotelako. Gainera, ez dut uste asko kontsumitzen dutenik gaur egungo argiek, eta kendu baino lehenago, ordutegia mugatuko nieke. Uste dut orain gau osoan egoten direla piztuta, eta ez dakit zentzurik daukan horrek. Tenporizadore batzuk jarriko nizkieke. Argi horien kostu nagusia da horiek alokatzea edo erostea; oso garestia da. Horregatik, Arkupe merkatari elkarte eta udala elkarrekin saiatzen gara dirulaguntza lortzen. Bestalde, argiak erostearen arazo nagusia da urte osoan zehar gordetzeko tokirik ez dagoela. Gai honekin lotuta, argiak kale gehiagotan jartzearen aldekoa naiz, gaur egun Arrantzale kanean ere ez baitira jartzen". ■■■



# "Haurtzaroa literaturaren iturri garrantzitsua da"

ANJEL LERTXUNDI IDAZLEA

Anjel Lertxundirekin luze eta zabal aritzeko aukera izan zuten azaroaren 24an Ibon Gaztañazpi eta Aritz Mutiozabal kazetariak, Orioko Kultur Etxean, Karkara kultur elkarteak antolatutako elkarrizketa-solasaldian.

Lertxundiren txikitako oroitzapenez, euskararen bilakaeraz eta literaturaz aritu ziren, besteak beste.

**Testua:** Aiora Larrañaga Solaberrieta. **Argazkiak:** Arnaitz Rubio Aprea eta Aitziber Arzallus.

**A**zaroaren 24an, Anjel Lertxundiri omenaldi polita egin zitzaion Orion, bere jaioterrian, Karkara kultur elkarteak udalaren babesarekin antolatutako ekitaldian, kultur etxeko areto nagusia leporaino zela.

Xabier Lizaso piano jotzailea izan zen oholtzara igotzen aurrena, eta hark ireki zuen saioa Maurice Ravelen abesti batekin. Haren ostean, Iñaki Iturainek hartu zuen hitza, ekitaldiaren muina izango zenari bide emateko: Anjel Lertxundirekin elkarrizketa-solasaldia. Aritz Mutiozabal eta Ibon Gaztañazpi kazetariak izan ziren hori gidatu zutenak eta Lertxundiri hamaika kontu polit kontarazi zizkiotenak. Umetako oroitzapenez, euskararen lehengo eta oraingo egoeraz, literaturan egindako lehen urratsez eta ondorengo ibilbideaz eta beste hainbat kontuz jardun zuen Lertxundik.

Ekitaldiaren bigarren zatiak, berriz, gehiago izan zuen aitortzatik eta sorpresatik; izan ere, Lertxundik espero ez zituen herritar ugari igo ziren agertokira. Aurrena, bere bost bilobak; gero, Eli Manterola Karkara kultur elkarteke kidea eta

Anuska Esnal Orioko alkatea; eta bukatzeko, Xabier Sukia eta Jon Sarasua bertsolariak. Lertxundik biziki eskertu zuen herrikideengandik jasotako beroa.

**Zortzi urtez bizi izan zinen Orion, Zarautzera joan aurretik. Nola oroitzen duzu haurtzaroa Orion?**

Idazle batentzat haurtzaroa oso inportantea da, haurtzaroa literaturaren iturri garrantzitsua delako. Hala ere, bi haurtzaro daudela iruditzen zait; bata, haurtzaroa eta ondorengo bizitza toki beren egiten direnean, eta bestea, haurtzaroa bukatu eta lurraldearekiko lotura bukatzen denean, beste herri batera bizitzera joaten zarenean. Nire kasuan, garbi sentitzen dut haustura hori gertatu zela, nahiz eta urrutira ez ginen joan. Nabarmentzen ziren desberdintasun batzuk bi herrien artean, hizkuntzatik hasita. Niri barre egiten zidaten *plaia* esaten nuelako, eta beraiek ez ziren konturatzen *kosta* esaten zutela. Orain denok *hondartza* esaten ikasi dugu. Horrelako txikikeriak dira, baina markatu egiten zaituzte. Gainera, erdararen presentzia ere handia zen Zarautzen. Horrez gain, Zarautzen aukera gehiago genituen. Orion, esaterako, etxean ez genuen libururik, baina Zarautzen aukera genuen





Ibon Gaztañazpi kazetaria jendaurrean elkarrizketa egiten.



Aritz Mutiozabal kazetaria Anjel Lertxundiren elkarrizketan.

Frantziskotarren liburutegian liburuak eskatzekoa, gaixo genuen amarentzat. Irakurzalea bazara, horrelako gauzez gehiago ohartzen zara. Lagunak atzean utzi dituzu, lurraldea utzi egin duzu, eta eskolaz ere aldatu egin zara.

#### **Haurtzaroko anekdotarik gogoan ba al duzu?**

Gogoratzen dut eskolan gaztelaniaz ikasi eta hitz egiten genuela. Jose Campos genuen maisua, asko estimatzen nuen, gainera. Baina, noiz jakin nuen nik Campos euskalduna zela? Bada, behin

Etxeberriko izebari esnea ekartzera lagundu nionean Maisu Etxera, gaur egun kultur etxea dagoen tokira, izebarekin euskaraz hitz egiten entzun bainuen. Jose Campos, Antonio Camposen aita, Ormaiztegiakoa zen, euskaldun peto-pettoa. Seguru aski, gero entzungo nion berriz euskaraz, baina niri pasadizo hura geratu zitzaidan buruan. Harrituta geratu nintzen, nik ez bainekien maisuak euskaraz bazekienik. Horrek ilustratzen du nolabait herriko giroa. Guardia Zibilen semeek ere euskaraz hitz egiten zuten hemen.

#### **Aipatu duzu bazeudela ñabardura batzuk Orioko eta Zarauzko euskararen artean. Zein ziren desberdintasun horiek?**

Batez ere aditz jokoan desberdintzen ziren. Gaur egun desagertu da, baina txikitik Zarautzera ailegatu nintzenean, oso aditz-joko xelebrea erabiltzen zuten bertakoek, eta oraindik ere zarautzarrei barre egiteko baliatzen dudan kontua da. Tonuan ere bazegoen diferentzia, baina hiztegian, ez hainbeste. Hala eta guztiz ere, desberdintasunak beti, gutxi badira ere, gailendu egiten dira berdintasunen aldean. Niri, orain, ahaztu egin zait *laga* esatea, *utzi* hitzagatik ordezkatu dut. Zarautzek ordezkatu du Orio, lexiko kontu horretan. Dena dela, orain saiatzen naiz aldian behin *laga* erabiltzen.

#### **Oriok ba al du presentzia zure liburuetan?**

Gaurko ekitaldia dela eta, hausnartzen aritu naiz etxean nire txikitako Orio nire liburuetan zenbatetan agertzen den jakiteko. Badut liburu bat, *Goiko Kale* izenekoa, eta nire haurtzaroko pasadizo batzuk kontatzen ditut bertan; noski, sortuak eta imajinatuak dira, ez dira errealitatearekin lotzen. *Goiko Kale*-n bezala, duela bi urte literatur saria irabazi zuen *Haltzaren Muinoa* gaztetxoen eleberria ere, ez litzateke Oriorik gabe existituko. Bertan kontatzen da uholde baten istorioa, eta liburuan zehar agertzen diren irudi asko dira hemen 1953. urtean izan zen uholde izugarri batek utzitakoak: belar meta bat ibaian behera, baita sehaska bat ere —seguru asko nik imajinatutakoa da hori—, aulkiak, egurrezko kaxak, behi bat... Irudi horiek dira nik ikusitakoak, etxean entzundakoak eta nik imajinatutakoak, baina oinarrian dute uholde hori. Izan ere, nahi ez duzula ere, liburu idazten ari zaren bitartean, etengabe aritzen zara haurtzaroarekin hizketan.

Gaur akordatu naiz, herrira sartu eta eliza ikusi dudanean, duela lau urte gerra karlistei buruz





Iñaki Iturain ekitaldiaren sustatzailea aurkezpena egiten.

**"GOIKO KALE' IZENeko LIBURUAN, HAURTZAROKO PASADIZO BATZUK KONTATZEN DITUT"**

**"ITSASOAREN ETA BASERRIAREN ARTEKO HARREMANA HURBILEKOA ZEN, GOIKO KALEA ZUBI ZELA"**

**"GAZTELANIAZ IDATZEN NUEN, BAINA 15-16 URTEREKIN EUSKARAZ IDATZI NAHIAN HASI NINTZEN"**

argitaratu nuen *Gilles de Rais* liburuan, Orio ere agertzen dela. Izan ere, liburu horretan apaiza bizi da eliza ondoko apaiz etxean, eta hori dago kokatuta herriko plaza baino altuago, eta bere begiradapean ditu plaza eta udaletxea. Horrelako hainbat detaile daude nire lanetan, baina normala da, idazle batek haurtzarotik ateratzen duelako materiala, eta haurtzaro hori, gainera, atzean utzi duzun herrian gertatu bada, ugariago izaten da. **Askok eta askok Orio itsasoarekin lotzen dute. Zu, Goiko Kanean bizita, eta Andutik eta Etxeberritik etorrita, itsastarra baino menditarragoa sentitzen al zara?**

Nire familia baserri girokoa zen, baina nik beti esan dut baserri eta itsas giroak badutela zerikusia zerbaitetan: lanpernetan, gure aita zena lanperna biltzaile amorratua baitzen. Nire ikuspegitik, itsasoaren eta baserriaren arteko harremana nahiko hurbilekoa zen Orion, Goiko Kale zubi zela. Guk, esaterako, osaba bat genuen itsasontzi bateko patroia zena, eta gertuko egiten zitzaigun mundu hori. Gainera, eskola ere kofradian genuen, eta bertatik itsasontziak ikusten genituen sartu-irtenean. Gainera, garai hartan, Jose Campos maisuak erakutsi zigun zerbait, bizitzan lagungarri izan zaidana: *rio* eta *ria*-ren arteko desberdintasuna, ibaiaren eta errioren artekoa, alegia. *Rio* dela ibai osoa, itsasoraino iristen dena, eta itsasora iristeko unean hori *ria* bihurtzen dela. Umetan askotan galdetzen nion neure buruari, obsesionatzeko punturaino, ea noiz egiten den ibaia erri eta errioa noiz bihurtzen den itsaso. Ibaiaren eta errioren artean badago tarte handi bat ezezaguna, misterioitsua, definitzen ez dakiguna; ezjakintasunaren eremua da. Eremu hori da, hain zuzen ere, literaturaren eremua; ezagutzen ez ditugun elementuetara hurbiltzen saiatzea da literatura, eta oro har, artea.

**Euskaraz alfabetatzen noiz hasi zinen?**

Apaiztegian nengoenean, 12 urterekin, hasi ginen euskarazko eskolak hartzen. Ez ziren asko, baina onak ziren. Ni alfabetatzen hasi nintzen irakurketaren bidez. Bagenuen maisu bat oso euskaltzalea zena; astero *Zeruko Argia* egunkariaren hainbat zenbaki ekartzen zizkigun, eta horiek irakurtzen genituen; gainera, gure etxean baziren Auspoa argitaletxeko liburu dezente, eta horiek irakurtzen nituen. Garai hartan, hiztegiak-eta ez zeuden, eta ezagutzen ez genituen hitzak azpimarratzen genituen, ondoren apaiz horrek itzultzeko edo euskarazko adiera bereko beste hitzak azal zitzaizkidan. Aitortu behar dut



Mutiozabal eta Gaztañazpi Anjel Lertxundi elkarrizketatzen, kultur etxeko oholtza gainean.

latinezko eta gaztelaniatzko gramatika ondo ezagutzen ditudan bezala, euskarazkoa ez dudala ezagutzen. Ez dut garatu euskara gramatikaren bidez.

#### **Ordurako hasita al zeunden idazten?**

Gaztetan gaztelaniaz idazten nuen, baina 15-16 urterekin euskaraz idatzi nahian hasi nintzen. Zailtasunak nituen oso ohituta nengoelako gaztelaniara, eta egun batean gure osaba Nikolasek, Etxeberrikoak, esan zidan: "Motella motella, ahaztu egin al zaik euskara?" Ez gure osaba Nikolas euskaltzalea zelako, euskaltzalea zer zen ez zuen ezagutzen hark, baina euskaldun peto-petoa zen, eta ikusten zuen bere ilobari gero eta gehiago kostatzen zitzaiola euskaraz aritzea.

Garai hartan, ohartu nintzen kultur arloan txundigarriak iruditzen zitzaizkidan gauza asko ekoizten ari zirela euskaraz, eta horrek ere euskaraz idaztera animatu ninduen. Horrez gain, Jorge Oteizak ere inpaktu handia izan zuen nigan. Berak euskaraz hitz egiten ez bazuen ere, euskarari benerazio handia zion, eta Oteiza bezalako artista handi batek mespretxatuta geneukan euskarari halako adorazioa izateak pentsarazi egin zidan. Arte eta kultura munduan

euskararekiko jarrera oso positiboa izaten hasi zen, eta ordura arte batere kontsideraziorik izan ez zuen gure hizkuntza pixkanaka distira hartzen hasi zen. Giro hark zerikusirik handia izan zuen nire posizionamenduan.

#### **1970eko hamarkadan, literatura berri bati hasiera eman zitzaionean, euskara batuak ibilbide laburra zeukan. Bi faktore horiek euskal gizartean zer erantzun izan zuten?**

Derrigorrezkoa ikusi zen euskara batua sortzea. Gero eta literatura gehiago egin, batasuna premiazkoagoa zen, irakurle gehiago zeudelako. Gainera, bazegoen beste kontu bat Txillidak eta Oteizak askotan azaldu zutena; herri honek bidali behar izan zituen bere seme-alabak Espainiara goi mailako ikasketak egitera joan zen mendera arte, hemen unibertsitatek ez zegoelako. Testuinguru horretan, olatu izugarri bat sortu zen hizkuntzari eusteko, eta euskara batuaren premia ezinbestekoa zela ulertzen zen.

#### **Uste duzu asmatu dela euskara batua zer den komunikatzen?**

Gorabehera nagusienetan asmatu dugu, eta euskara batua erabiltzen dugu administrazioan, hezkuntzan eta unibertsitatean. Baina ez dugu

asmatu hizkuntzaren berezkitasuna azaltzen: hainbat hiztun, hainbat hizkera. Ugaritasun hori erabiltzen ez dugu jakin. Hitz egiten dugunean, ez dugu beti hizkera bera erabiltzen batekin eta bestearekin. Gurasoekin, seme-alabekin, lagunekin edo modu jasoago batean ari garenean, esaterako, konturatu gabe erregistroa aldatzen dugu. Erregistro bakarrekin aritzen garenean, garai batean esaten zitzaion apaiz hizkuntza zela, eta orain, unibertsitate hizkuntza deitzen zaio. Egokia iruditzen zait unibertsitatean irakasteko hizkuntza hori erabiltzea, baina norbaitek nirekin poteatzera joateko hizkuntza hori erabiltzen badu, ez dio hizkuntzari bere etekina ateratzen. Orduan eta ugariago jardun, orduan eta mesede gehiago egiten diogu euskarari. Hizkuntza ez dago bakarra, guk ematen dizkiogun posibilitateen multzoa baita.

**Aste honetan entzun diot gaztelaniaz ez dakien mutil koskor bati: "Realak jokatu zuen *contra* Manchester". Horrelakoan aurrean zer egin behar dugu?**

Hizkuntza moldatu daiteke, baina arau batzuk errespetatu behar dira. Uste dut estrategiak antolatu behar direla hezkuntzatik eta hedabideetatik; irakasleei ez zaie gehiegi exijitu behar, baina gutxiegi ere ez. Agian estrategiak falta direla iruditzen zait, eta erabilerak nondik datozen detektatzeko beharra ere badago.

**Idaztetik bizi izan zaren idazle bakarrenetakoa zara Euskal Herrian. Hori *sorioneku* al da?**

Nire bizitza profesionalean irakasle izan nintzen 20 urtez; hasieran, Ikastolan, eta gero, Magisteritza Eskolan. Kazetaria izan naiz eta telebistan ere jardun naiz. Literatura egitetik bizi izan banintz, aspaldian gosez hilda geunden etxean. Gogoan dut Alfagoara argitaletxearekin gaztelaniaz publikatzen hasi nintzenean, zer nolako lana egin behar zen: batera eta bestera ibili behar izaten nuen aurkezpenak egiten, eta beste hainbat kontutan. Galtzen nuen energia gehiago liburua saltzen, idazten baino. Zorionez, nire editorearekin harreman estua dut, eta hark



Anjel Lertxundiri ezustekoa eman zioten bilobek omenaldian.

argitaratzen ditu gaztelaniaz nire liburuak, baina badakit horiek ez dutela Alfagoarak duen banaketa estatu mailan, mugatzen garelako Euskal Herrira eta Kataluniara.

**Beraz, ikuspegi okerra dago zu bezalako idazleen inguruan?**

Oso okerra. Une honetan, badaude punta-puntan dabilzan idazle gazteak, normalean emakumeak, funtzionatzen ari direnak. Idazle baten sonak, ordea, irauten du irauten duena; bestela egon behar duzu egiten duzun horri irtenbidea emateaz adi, eta bihurtzen zara beti gauza bera egiten duen makina bat. Traizio egiten diozu zure idazle izaerari. Merkantilizazio hori behar-beharrezkoa da hortik bizi nahi bada, baina arriskutsua da eragiten diolako produktuari. Gaur egungoa oso egoera konplexua da gaztelaniazko idazleentzat, eta zer esanik ez, euskaraz idazten duguontzat.

**Nola deskribatuko zenuke zure ibilbidea hitz gutxitan?**

Eleberriak, ipuinak eta saiakerak idazten ditut, eta gauza bat dut argi: ez dut inoiz arrakastaren bidetik jokatu. *Hamaseigarrenean aidanez* sortu nuen, baina ez naiz bide beretik jardun, antzeko liburuak egiten. Beti gustatu izan zait gauza berriak egitea, ez erabiltzea etengabe errepikatzen den formula bat. Nire liburuak aztertuz gero,





Ekitaldian parte hartu zuten guztien talde argazkia.

**"EZ DUGU ASMATU HIZKUTZAREN  
BEREZKOTASUNA AZALTZEN:  
HAINBAT HIZTUN, HAINBAT HIZKERA"**

**"GAUZA BERRIAK EGITEA GUSTATZEN  
ZAIT. NIRE LIBURUEK ELKARREN  
ARTEAN ANTZ GUTXI DUTE"**

**"ORION, NIRE LAGUN ETA  
IKASKIDEENTZAT, EZ NAIZ 'ANDU',  
EZTA ANJEL ERE, 'ETXEBERRI' NAIZ"**

konturatuko zarete, elkarren artean antz gutxi dutela. Asko kezkatzen nau ez errepikatzeak, eta horretan saiatzen naiz.

**Liburutegi eder bat duzu etxean. Zer zara gehiago: idazle ala irakurle?**

Askotan esan dut, idazle kaskar baten atzean ere, beti dagoela irakurle on bat. Irakurri gabe ez da posible idaztea. Ez dugu ezerezetik sortzen, sortzen dugu irakurritakotik, entzundakotik, ikusitakotik, usaindutakotik. Agian irakurlea ez da konturatuko, baina orain dela urte batzuk idatzitako libururen bat hartutakoan, pasarteren batek gogoratzen dizu aurretik irakurri zenuen beste liburu bat. Horrek esan nahi du liburu horrek itzal bat izan duela eta islatu egin dela idatzi duzun horretan.

**Nola sinatzen duzu: Anjel edo Andu?**

Pozten naiz galdera hori egin didazulako. Ni, Orion, nire lagun eta ikaskideentzat, ez naiz *Andu*, ezta Anjel ere: *Etxeberri* naiz, amaren baserriaren izena. Andu izena hartu nuen Zarautzera joan ginenean. Aitari Andu deitzen zioten, baina bagenuen osaba Zarautzera bizitzera lehenago joan zena, Andu errementaria, eta mundu guztiak Andu bezala ezagutzen zuen. Imajinatzen dut handik datorkidala ezizena. Andu deitzen hasten zaizkit oso azkar, baina inoiz ez zitzaidan burutik pasako "Andu naiz" esatea, *Etxeberri* nintzelako. Ez dit molestazen, baina nik ez dut behin ere Andu bezala firmatu. ■■■

# Bertsoa, etxetik urrun



ELI HUEGUN

**E**uskaldunok Madril kolonizatu dugula iruditzen zait askotan, baina espejismoa da, euskaraz aritzeko aukera bakarra neronek bilatutako espazioetan baino ez baitaukat. Madrilen bizi naiz eta nire inguru ia guztia erdalduna da hemen. Logikoa, noski.

Betikoengandik oso aparteko bizimoduak ezagutzeak mesede baino ez didala egin esango nuke, aberastu egin nauela elkarbizitza horrek. Imajinatzen dut nik besteekin ikasi dudan bezala, egongo zela jendea nirekin ikasi duena. Baina badut hartu-eman kultural honetan partekatu ezineko pasio bat: bertsolaritza.

Truke kultural honetan saiatzen naiz bertsoaren magia transmititzen, bat-batekotasunaren zirrara hori azaltzen, gaia entzun eta bertsoa hasi bitarteko trantze kolektibo horren konplizitatea sentiarazten, itxiera borobil baten emozioa bizitzen. Baina, nola egiten da hori? Nola azaldu errimen jolas hori? Puntu-erantzunaren grazia? Ganbarako tentsioa?

Uste dut hemen ez dudala lortu inork uler nazan. Esaten didate zeharo gaizki abesten dutela eta ia beti egia izaten da, nahiz eta horrek axolarik ez duen. Galderak ere egiten dizkirate; errepikatuena, agian, da nola dakiten ze doinutan abestu behar duten. Eta nik esaten diet doinuak dakizkigula, asko, eta arraroa egiten zaie melodia hutsak kantatzen ditugula erantzutea, izan ere, *nananana* eta *tarirari* letra herrikoak dira gurean.

Bertso baten mezua esplikatu daiteke eta letra itzuli ere bai, baina bertsoa sentitzeko zuzenean ulertu behar da, komunitatearen parte izan eta horretarako aukera euskarak baino ez digu ematen. Zorionekoak gu. Esaten diet hor daukatela motibo bat gehiago euskara ikasten hasteko.

Gogoratzen dut punta-puntan dabilen bertsolari baten ama ezagutzeko aukera izan nuela orain dela hilabete batzuk. Ez zuen euskal jatorririk, eta adinez nagusi zela zen Euskadiratua, gainera. Ez zigun euskaraz egin, baina bai argi utzi ulertzen zuela. Eskerrak, pentsatu nuen, semea bertsoan aditu zezakeen horrela. Une batez ezinegona sartu zitzaidan, horrelako maisu baten ama izan eta eta semea jeinutasunean ezin ezagutzea! Agian horretarako hasi zen euskara ikasten, baina ez nion galdetu. Hamaika arrazoi egon daiteke hizkuntza bat ikasteko, eta uste dut bertsolaritza horietako bat dela. Horregatik bakarrik bada ere, merezi du. ■■■

**"MEZUA ESPLIKA  
DAITEKE ETA LETRA  
ITZULI ERE BAI, BAINA  
BERTSOA SENTITZEKO  
ULERTU EGIN BEHAR DA"**



# Publikoa, euskalduna eta propioa

**E**uskal Eskola Publikoaren aldarria ozena izan zen Bilbon azaroaren 5ean. 10.000 pertsona bildu ginen "hezkuntza lege honi, ez" esateko, Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak deitutako protestan. Zaraguetako maiatzeko berripaperean Eusko Legebiltzarreko gehiengo zabala ordezkatzan duten lau partidu politikoek adostutako Hezkuntza Akordioaren irakurketa plazaratu genuen, eta ezkorra zen. Eta bereziki bi gako azpimarratzen genituen: euskal hezkuntza zerbitzu publikoak dakarren tranpa eta elite politikoaren arteko adostasuna izan zela, eta inondik inora ez herri akordio bat. Bada, azken asteetako mobilizazioek, greba deialdiek, txio bidez eztabaidek eta

hedabideetako iritzi artikuluek zein titular handiek ideia horiek indartu besterik ez dituzte egin. Izan ere, aurkeztutako lege aurreproiektuak eta, bereziki, indarrean diren dekretuek, eskola publikoa babestu beharrean ahuldu egiten dute, kontzertatuak zein pribatuak indartzen dituzten bitartean.

## Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa

Eskola publikoen eta pribatuen arteko bereizketa izan da eztabaidaren oinarrietako bat. Behin eta berriro esaten ari dira publiko-pribatu dikotomia gainditu behar dugula, eta ados gaude. Baina, horretarako, eskolak publikifikatzeko marko bat eratu behar da. Eta ez sasi konponbide bat.

Eredu berriaren arabera, betebeharrak batzuk betetzen dituen ikastetxe orok jasoko du

finantzazio publikoa %100ean. Eta ez gaude ados. Orain arte egin dena egiten jarraitzeko formula bat da, beste izen bat emanez. Badira 35 urte itunen dekretua onartu zela. Bertan, diru publikoa banatzeko baldintzak eta neurriak zehazten ziren, eta oraingoak aipatzen dituenak baino zorrotzagoak ziren: ezin ziren kuotak kobratu, lehenetsuna zuten egoera zaurgarrian dauden ikasleei erantzuten zieten ikastetxeek, euskara bultzatzen zutenak lehenetsiko ziren, erlijio ekintza guztiak borondatezkoak izango ziren, eta abar. Urte hauetan guztietan, horiek ez dira bete, eta ez dituzte betearazi. Orain, gauza bera egitea proposatzen digute, eta horri, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa deitzen diote. Baina orain arte ez bada bete, hemendik aurrera

## HAUXE BAI JENEROIA!





bai? Bermerik badugu? Ikusiak ikusirik... Pribatuari publiko deitzeak ez du publiko bihurtzen.

### Itun politika

Hezkuntza akordioa sinatu zutenetik hona, ikastetxe pribatuen itunak datozen sei urteetarako luzatu dituzte, jakin arren jaiotze tasa txikitzen ari dela. Sare pribatuari bermatzen zaio gela kopuru bera mantendu ahal izango duela. Hortaz, jaiotze tasen beherakadak bultzatuta plazak desagertzen badira, non desagertuko dira? Kontrara, planifikazio dekretuan aurreikusten da sare publikoan ikastetxeek gutxienez bi lerro izan behar dituztela, eta horrek ekar dezake hainbat ikastetxe fusioatzea edo desagertzea. Bermeak ezartzen dira sare pribatuarentzat, eta baldintzak

ezartzen dira sare publikoarentzat.

### Eskolaratze dekretua

Dekretu berriak segregazioari aurre egiteko asmoak omen ditu, baina ikasle zaurgarriak banatzeko finkatu dituen irizpideek ez diote erantzuten horri. Gakoa ez baita kohesio soziala bermatzeko ikasle horiek banatzea, guztiak modu orekatuan banatzea baizik.

Tinko sinesten dugu Zaragueta-ko hezkuntza eredian, publikoan, inklusiboan, euskaldunean, laikoan eta doakoan, aniztasunarekin eta hezkidetzarekin konprometituan, berdintasunean eta kalitatean oinarritutakoan, ikasle guztien hezkuntza integrala eta herri zein gizarte kohesioa bermatzen dituen eredian. Oriok Zaragueta eta Zaragueta Orio behar eta merezi duelako, ez dugu etsiko! ■■■

## NIRE HONETAN



AITZIBER ARZALLUS

## Mundiala

**K**ontraesanez betetako pertsona naiz. Gazteago nintzenezan sekula egingo ez nituela esandako gauza asko egin ditut, eta egin beharko ez nituzkeela pentsatzen dudan beste batzuk ere bai. Azkena, aste honetan bertan, Munduko Futbol Txapelketaren harira: txapelketarako azpiegiturak eraikitzen 7.500 langile hil direla jakin arren, partida guztiak ikusteko aukera eskura jarri diot 14 urteko semeari, Gol Mundial aplikazioa 20 euroren truke kontratatuta. Futbolaren friki bat da bera, eta ni, kontraesanez betetako ama.

Itxura denez, ez da *Mundiala*-rekin itsututa dabilen gazte bakarra. Lehengoan Euskadi Irratian entzun nuen zenbait institututan neurriak hartzekotan dabilzala, ikasleak direnak eta ez direnak egiten ari direlako Qatarren jokatzeko ari diren partidak zuzenean jarraitu ahal izateko: komunean ezkutatu, eskolara joan gabe gelditu... Kazetariak institutuko atarian topatu zituen zenbait ikasleri galdetu zien hori horrela ote zen, eta haietako batek inolako erreparorik gabe aitortu zuen baietz, arrazoi mundiala emanda, gainera: "Errua ez da gurea, errua FIFArena da". Lau urtean behin izaten den txapelketa beraiantzat ekitaldi oso garrantzitsua dela zioen gazteak, eta beti bezala udan izan balitz, ez zuketela horrela ibili beharrik izango. ■■■





**URANGA**  
burdindegia

**Opari, menaje eta erremintak**

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



**Oreka**  
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



**SU KIA**  
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oilaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1  
ORIO · 943-89 21 29



**JARRI  
HEMEN  
ZURE  
IRAGARKIA**



**Zaragueta IPI**  
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43  
012137aa@hezkuntza.net



**XS** arkitektura

www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak  
eraikinen mantenua  
errehabilitazioak  
proiektuak  
txostenak  
ITE-ak  
obrak



**ZINKU  
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

*Ander Zinkunegi*  
**667 74 02 79**




**Zarautz**



**Hileta Zerbitzuak**  
1962. urtetik zure zerbitzura

**24 ordu zure zerbitzura** Beilatokia ·  
Lekualdatzeak · Eginbide guztien tramitazioa

**ORAIN ABENDAÑON GAUDE**  
Urteta bidea 2, ZARAUTZ  
943-89 49 37 · 943-42 21 29  
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

**Sinergia**  
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO  
943-13 05 77 · 685 71 85 95  
sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zainfirituak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldiko tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



LARDIZABAL HERRI ESKOLA  
EKI AIZPURU ETA HAIZEA IRURETAGOIENA

# "Oso garratzitsua da talde lana"

JEXUX GOIKOETXEA LARDIZABAL HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA

**J**exux Goikoetxea Balentziaga Lardizabal Herri Eskolako zuzendari berria da. Elkarrizketa honetan bere ardura berriari buruzko informazioa jaso nahi izan dugu.

## Zenbat kide zaudete eskolako zuzendaritzan eta zein da kide bakoitzaren lana?

Zuzendaritza taldean hiru pertsona gaude, eta lanak hiruron artean banatzen ditugu. Batek administrari lanak egiten ditu, besteak pedagogia lanak, eta hirugarrena administrazioarekiko harremanen parteaz arduratzen da.

## Nolatan erabaki zenuen zuzendari izatea?

21 urte daramatzat Aiako eskolan, eta orain arte ez nintzen zuzendari izan. Gure eskolan hasieratik izan gara lanak banatzearen aldekoak. Jubilatzeke ez zaidanez asko falta, tokatzen zitzaidala pentsatu nuen, eta horregatik erabaki nuen kargua hartzea.

## Zaila al da zuzendari izatea?

Zaila ez da. Buruhauste batzuk badauzka, baina edozeinek egiteko moduko lan bat bezala ikusten dut. Buruko min batzuk ekartzen dituena bai, baina zaila ez.



## Lan asko egin behar al da?

Bai, baina beste irakasleek ere hala egiten dute. Eduki behar dena da eskola guztiaren ikuspegi orokor bat, eta burua erne eduki behar duzu momentu guztietan.

## Talde lana garrantzizkoa al da?

Oso-oso garrantzizkoa. Talde lanik gabe ezingo genuke eskola aurrera eraman. Zuzendaritza taldekoek irakasleekin eta familiarekin taldea osatu eta denok batera lan egin behar dugu.

## Teknologia digitala asko erabiltzen al duzue?

Halabeharrez. Lehen paperean egiten zena, orain ordenagailu bidez egiten da; hainbat aplikazio erabilia egiten dira gauza asko.

## Hartu beharreko erabakiak errazak al dira?

Batzuk beste batzuk baino zailagoak. Ezin dena da beti denen gustua egin, baina saiatzen gara. ■■■



KATTALIN SOLAGUREN

## Animaliak zooetan

**G**aur, animaliak zooetan bizitzearen inguruan nire iritzia ematera nator. Batzuentzat polita da animaliak zooetan egotea, horrela umeek ikus ditzaketelako nolakoak diren munduko beste leku batzuetako animaliak. Egia da jendeak disfrutatu egiten duela zooetan dauden animaliak ikusten, eta familiarrean eguna pasatzeko aukera politik eskaintzen dituztela horrelako lekuek. Badakit zooetan animaliak salbu daudela eta ona izan daitekeela animalia horiek han bizitzea.

Beste batzuek, ordea, pentsatzen dute animaliek sufritu egiten dutela han, animalientzat zooa kartzela bat dela. Guretzat ere horrelakoa da kartzela, itxia. Eta animalia asko eta asko jendearekin beldurtu egiten dira, jendearen zaratekin, eta abar. Euren habitat naturaletik urrun daude, eta estres handia jasaten dute.

Nire ustez, animaliak libre bizi beharko lirateke dauden lekuetan: desertuan, basoan, sabanan eta abar, guztioi gустatzen zaigulako aske bizitzea kartzela edo kaiola batean beharrean.

Zuek zer iritzia duzue horren inguruan? Animatzen zaituztet zuen gelan edo etxean gai honen inguruan eztabaidatzera. Ea zer ondoriotara iristen zaren. ■■■





# Aian, gazteak herria egin nahian

17 eta 26 urte arteko hogeita bosten bat gaztek osatzen dute Aiako Gazte Asanblada sortu berria. Herrian bertan sozializatzeko espazioak eraiki eta gazteentzat erakargarri diren jarduerak antolatu nahi dituzte, eta erabaki dute, poliki-poliki, bidea egiten hastea. Oraingoz, hileroko pintxo potea egiten hasi dira, eta abenduaren 28rako herriko gazteen afaria antolatu dute. Baina bestelako asmoak ere badituzte buruan.

**Testua eta argazkiak:** Aitziber Arzallus.



**A**zaroaren 4a, ostirala. Aiako hainbat gaztek 19:00etan kultur etxera azaltzeko deia egin dute, Aiako Gazte Asanblada herritarren aurrean aurkeztu behar dutela eta. Lehen solairuan dagoen ikus-entzunezkoen gelan izango da aurkezpena, eta ordua jotzerako, jende mordoxka dago bertan. Batzuk eserita eta besteak zutik, bete egin dute aretoa. Gazteak dira gehienak, baina horren gazte ez den bakarren bat ere bada tartean.

Ainhoa Gonzalez Txabarri eta Iñaki Alkain atera dira jendearen aurrera, herritarrei azalpenak ematera. Gonzalez Txabarrik hartu du hitza, eta asanblada aurkezteko ekitaldia antolatzearen zergatia azalduz hasi da. "Garrantzitsua iruditu zaigu aurkezpena egitea, batez ere herriko gainontzeko gazteei gure asmoen berri emateko, baina baita beste edozein herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko ere, badakigulako Aia zer-nolako herria den, eta gauza berriek, oro har, zer-nolako harrera izaten duten".

Asanblada zergatik eta zertarako sortu duten azaltzeari ekin dio jarraian, eta horretarako, beharrezko jo du urte batzuk atzera egitea, duela bost bat urte herriko hainbat gaztek antolatu zuten aurreneko Gazte Egun hartara. "Askotan entzun izan dugu Aian dagoena dagoela. Gure aurreko belaunaldi askok izan dute sentipen hori, onartu egin dute gauzak horrela direla eta kanpora joan beharra dagoela gazteontzat erakargarri diren gauzak topatzera. Horregatik, guretzat eredugarria izan zen nola gazte haiek, beren borondatez eta konpromisoz, ordura arte emana zitzaiguna gainditzeko modua topatu zuten. Askorentzat, festa egun bat antolatzeak ez du aparteko meriturik izango, eta kritikagarria ere izango da zentzu askotan;

Ezkerrean, azaroaren 18an asanbladaren batzarrean parte hartu zutenen talde argazkia. Eskuinean, batzarreko une bat.





Ezkerrean, Iñaki Alkain eta Ainhoa Gonzalez de Txabarri, asanbladaren aurkezpen ekitaldian. Erdian, Aiako Kultur Etxeko ikus-entzunezkoen gela beteta, asanbladaren aurkezpen egunean. Eskuinean, aurkezpena eta gero, pintxo poteari hasiera ematen, trikitilari eta guzti.

esango dute gazteen interesen adierazgarri dela. Gu ere, hein batean, ados gaude horrekin, badakigu festa egun bat nahikoa ez dela gauzak aldatzeko; baina gauzak aldatu nahi badira, nonbaitetik hasi egin behar izaten da. Haiiek bidea ireki zuten, eta guk bide hori baliatu nahi dugu gure jarduna zabaltzeko eta orokortzeko".

Gonzalez Txabarrik kontatu du oraingoan ere herriko festak izan direla herriko gazteak biltzen hasteko aitzakia. "Duela hilabete batzuk, herriko festak antolatzeko asmoarekin, herriko zenbait gazte elkartzan hasi ginen, eta elkarren berri izan ahala, konturatu gara sozializatzeko ditugun espazio ia denak kanpoan edukitze hori gure borondatearen kontrako zerbait dela. Hau da, bakoitzak bere adinaren eta gustuen arabera interesak izan arren, denok dugula nahia herrian bertan gazte bezala garatzeko espazioak eta aukerak izateko".

### **Festak aitzakia**

Hori horrela, festen aitzakian sortutako talde hari jarraipena ematea erabaki dute. Iñaki Alkainek hartu du hitza: "Ikusten genuen talde ederra osatzen genuela, festak pasatu eta gero ere biltzen jarraitzeko modukoa, gogoia eta indarra genituela herrian gauzak sortzeko eta ekintzak antolatzeko, eta erabaki dugu pauso bat ematea eta Aiako Gazte Asanblada sortzea. Lehen ekintza bezala, gaurko pintxo potea antolatu dugu, eta aurrerantzean, hileroko, hileko lehen ostiralean, pintxo potea egingo dugu herriko tabernetan. Aurrera begira, ordea, asmoa daukagu beste hainbat ekintza antolatzeko: kontzertuak, hitzaldiak, mahai inguruak, tailerrak eta bestelakoak. Lotu ahala, joango gara horien berri ematen".

Asanbladak herrian izan duen harrerarekin "oraingoz gustura" daudela adierazi du Gonzalez Txabarrik, ondo hartu dutelako bai herritarrek eta bai udalak. "Gero, jardunak esango du ondo ari garen ala ez, baina saiatu gabe behintzat ez dugu gelditu nahi". Hori esanda, eta oraindik asanbladara arrimatu ez diren herriko gazteei azaltzeko deia eginda bukatu dute aurkezpen ekitaldia, eta kultur etxean bildutakoak pintxo potea egitera joan dira trikitilari eta guzti.



Azaroaren 18a, ostirala. 19:00ak dira eta euria goian behean ari du Aian. Honezkerok itxita behar luke kultur etxeak, baina atea erdi zabalik dago. Ilun dago beheko solairua, baina ahotsak datoz goitik. Eskailera igo eta atepetik argia ikus daiteke ikus-entzunezkoen gelan. Barruan, hogeita bost bat lagun. Aiako Gazte Asanbladako kideak dira denak. Aretoa bete egiten dute berriz ere, baina oraingoan borobilean eserita daude. 17 urte dituzte gazteenek, 26 urte ditu zaharrenak. Batzuk Batxilergoko ikasleak dira, beste batzuk unibertsitate ikasketak egiten ari dira, ikasteko gogorik ez eta aspalditxoan lanean dabilenen bat ere bada tardean, eta baita ikasketak eta lana uztartzen dituenik ere. Kirolariak batzuk, kirolzaleak beste batzuk, eta kirolerako baino parrandarako afizio handiagoa dutenak beste zenbait. Batzuk herrigunekoak dira, beste batzuk baserritarrak eta San Pedroko auzotarrak ere badira. Beraz, denak aiarrak eta denak gazteak, baina hortik aurrera, kide adina profil biltzen ditu asanbladak.

Astero edo bi astean behin elkartzen dira kultur etxean, eta gaurkoan, abenduaren 28az hizketan hasi dute batzarra. Egun horretan herriko gazteen afaria egiteko asmoa dute, eta hori antolatzeko lanetan ari dira. Eztabaidatu dute nor den gazte eta nor ez, eta azkenean esan dute norberak ikus dezala. Beraz, gutxi gorabehera esanda, edonork izango du afari horretara joateko aukera. Afariak ez ezik, afariaren aurrekoek eta ondorengoek ere jardun dute. Poteo garairako elektrotzaranga bat ekarri nahi dute, zeini esan etortzeko, hori izan dute eztabaidagai; baina ematen du adostasunera iritsi direla. Afalosterako, berriz, herriko DJ bati eskatuko diote musika jartzeko. Kartelak eta sarrerak nork egin eta non jarri ere hizketagai izan dute. Lanak banatu dituzte, eta erabaki dute Iturriotz tabernan jarriko dutela afarirako izen-ematea.

#### Asanblada egituratzen

Abenduaren 28rakoak lotuta, gai-ordeneko hurrengo puntura pasatzea erabaki dute. Parranda giroko ekimenez gain, bestelako jarduerak antolatzeko asmoa ere badutela esan zuten

**HILERO PINTXO POTEA  
EGITEN HASI DIRA ETA  
ABENDUAREN 28RAKO  
GAZTEEN AFARIA  
ANTOLATU DUTE**

**BESTE ERA BATEKO  
JARDUERAK ERE  
ANTOLATU NAHI  
DITUZTE: HITZALDIK,  
IKASTAROK...**



Ezkerrean eta eskuinean, azaroaren 18ko batzarreko bi une.

aurkezpenean, eta urtearen hasieratik lan horri heltzeaz hitz egiten hasi dira. Zeramika tailerra antolatzeke proposamena bota du batek, jendea animatuko litzatekeelakoan. Konplikatuergia izango litzatekeela erantzun diote gainontzekoek, eta horretan utzi dute ideia. Buruari bueltaka hasi dira, baina, momentuan, inori ez zaio ezer okurritzen. Eta horretan daudela, "zergatik ez ditugu lanak banatzen?", esan du Gonzalez Txabarrik. "Denok denera jardun beharrean, ez al litzateke egokiagoa izango lantaldeak egitea eta lantalde bakoitzari ardura batzuk ematea? Horrela, denok izango genituzke zer eginak, eta iruditzen zait denok momentu oro aktibo egotea dela honen parte sentitzeko modurik onena". Bat etorri dira besteak, eta zer lantalde sortu eta kide bakoitza horietako zeinetan sartu erabakitzeari ekin diote.

Hainbat lantalde sortu dituzte: udalarekin harremanak izateaz arduratuko dena, diruzaintzakoa, asanbladaren bilerak gidatuko dituen, jarduera berriak proposatuko dituen, festen lantaldea, azpiegiturez arduratuko dena eta komunikazioaz eta sare sozialez arduratuko dena behintzat bai. Lantaldeetako batzuetarako nahikoa jo dute bi edo hiru kide izendatzea; beste batzuetarako, egokiago jo dute kide gehiagoko taldeak osatzea. Gaitasunen arabera banatu dituzte ardurak, baina inor ez da libratu, eta batek baino gehiagok lantalde batean baino gehiagotan eman du izena. Lantalde bakoitzaren ardurak eta eginbeharrak ere definitu dituzte, eta idatziz jaso, dena argi eta garbi gelditu dadin. Nabari zaie Aiako Gazte Asanblada luzerako proiektutzat dutela, eta gauzak txukun egin nahi dituztela.

### **Harremanak egiten**

Normala denez, kide batzuek gehiago hitz egiten dute besteek baino, baina isilik daudenak ere eroso ikusten dira. Horretan, seguruenik, izango du zerikusirik denborak eta elkar ezagutzeak ematen duten konfiantzak. Asanblada sortzeak elkarren artean harremanak egiteko balio izan ote dien galdetuta, aho batez erantzun dute baietz. Alkain: "Zarautzera eta Oriora joateko joera handia dugu, eta bi herri horietan lagun asko dauzkagu, baina



aiarrok, normalean, kuadrilla Aiakoa izaten dugu. Hori bai, hemengo kuadrillak ez dira izaten adin bereko jendeak osatutakoak, lau edo bost kintatako jendea kuadrilla berean bildu ohi gara, eta gutxi izate horregatik, oso ohikoa da gu baino zaharragoekin eta gazteagoekin ere harremana izatea. Dena dela, adibidez nire kasuan, hemen biltzen garen guztiak ezagutu bai egiten nituen, baina batzuen berri oso gutxi nuen, eta asanbladari esker, herrian geure parekoa izan daitekeen jendea

deskubritzen ari gara eta elkar askoz hobeto ezagutzen. Oraingoan, gainera, Aian ari gara elkar ezagutzen, Aiari begira, Aian bertan zerbait egiteko helburuarekin. Hori berria da denontzat, eta horregatik bakarrik ere, esperientzia aberasgarria izaten ari dela esango nuke".

Bi orduko batzarra eta gero, denak batera joan dira afaltzera, orkatz haragiz egindako hanburgesak jatera. Asanblada eta herria egiteko modurik onena, inondik ere. ■■■



# NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna [karkara@karakara.eus](mailto:karkara@karakara.eus) e-posta helbidera bidali abenduaren 16a baino lehen.

**Saria:** Izarra elektrogailuaren 100€ko 4 bono. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Azaroko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkatututa zegoen asmatu behar zen. 18. orrialdean zegoen ezkatututa, eta **Kontxi Eizagirre** bazkidea izan da irabazlea.

# Tuberkulosoentzako sendategia Andazarraten



**IÑAKI ITURAIN** iturain@gmail.com

**ARGAZKIAK:** UTZITAKOAK

Aiako eskolako ikasleek ikasketak bukatu eta hango eskola uzten dutenerako, gehienek jakingo dute, noski, Ernio mendiak milatik gora metro dituela; iraileko igandeetan jaia eta erromeria izan ohi dela Zelatunen; eta San Ignaziok gaua eman omen zuela Iturriotzeko Bentan, 1535ean Paristik bueltan Loiolako sortetxerako bidean zihoala.

Era berean, ba al dakite XX. mendeko lehen urteetan Andazarraten burdin mea ateratzen zutela hango meategietatik? Eta Andazarrateko bidegurutzearen ondoko zelaian sendategi bat izan zela tuberkulosia zuten gaixoak artatzeko?

Mundu mailako jakintza unibertsalarekin batera, tokian tokioa ere landu behar dela diote oraingo eskola curriculumek. Ernio, Zelatun, Iturriotz eta Andazarrate, denak Aiak mugakide dituen Asteasu eta Errezil udalerriekiko mugen inguruko tokiak dira, izen toponimiko oso ezagunak Aiako herritar guztientzat; eta, beraz, haiekin lotutako kultur gaiak, jakin beharrekoak.

## Meatzarien bizileku

Aiatik Asteasurako bidean, Andazarrateko gainean, eskuin aldera Iturriotzerako bidea abiatzen den gain horretan,

errepidearen ezkerreko zabalgunean barrakoiak egon ziren XX. mende hasieran, han gertu zeuden meategietako langileak bizitzeko. 1930ean meategiak itxi zirenean, tuberkulosia zutenentzako ospitalea egon zen, 1933tik aurrera; eta 1971n sendategia itxitakoan, inguruko baserrietako haurrentzako eskola. Tokiak badu historia, baduenez! Eremu hori Asteasuko udalerraren barruko lurretan kokatuta dago, Gipuzkoako bi bailara lotzen dituen mendatean: Beterri eta Urola Garaia, Aiarekiko mugatik gertu.

XIX. mendearen erdialdetik, Andazarrateko Izurtzu baserriaren inguruko meategietatik burdin mea ustiatzen zen. Mea Villabona-Zizurkilgo tren geltokira eramaten zuten, gero handik zabaltzeko. 1909an, enpresak aireko tranbia sistema bat eraiki zuen: 11 kilometroko aireko kable sistema bat. Haren bidez,

**OSPITALEA ERAIKITZEN  
1928AN HASI ZIREN,  
ETA 1933KO  
EKAINAREN 1EAN  
INAUGURATU ZUTEN**

mea Zarauzko Mollarriko ontzirekuraino eramaten hasi ziren, bagonetetan sartuta, kabletik zintzilik, Aiako lurretan barrena. Mollarrin barkuetan zamatu eta Ingalaterra aldera garraiatzen zuten. 1926an istiluak izan ziren meatzarien eta konpainiaren artean, eta 1930ean itxi egin zuten meategia. Orduan, konpainiak Diputazioari saldu zion Andazarrate gaineko meatzarien etxea.

## Tuberkulosoentzako sendategia

Gillermo Etxeberria asteasuarrak idatzitako *Asteasuko kontakizunak* liburutik Andazarrateko sendategiari buruzko zenbait kontu hartu ditugu.

1920ko hamarkadaren azken aldera, istiluak izan ziren meatzean. Diputazioak etxe hura erosi eta berehala berreraikitzen hasi zen. Ez dakiguna da lehengo langileen etxeak eraitsi, bota, eta berria egin zuten, edota lehengoak aprobetxatu zituzten.

XIX. mendearen amaieran eta XX.aren lehen erdian, tuberkulosia gaitz beldurgarria zen Europa guztian. Erdi Arotik *izurri zuria* izenez zen ezaguna. 1905ean hiru milioi pertsona hil omen ziren European gaitzak jota. Estatuan, Bizkaia eta Gipuzkoa ziren proportzioan hildako gehien jasan zituztenak, hainbat arrazoiengatik: higie eza, lan akigarriak, elikadura

txarra, soldata eskasak... 1852an lau ospitale zeuden Gipuzkoan: Donostian, Tolosan, Azpeitian eta Bergaran; hala ere, ohe falta handia zegoen.

Andazarraten beste bat zabaldu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, han zegoelako probintziako aire garbiena, eta paraje lasaia zelako. Ospitalea eraikitzeko lanak 1928an hasi zituzten, eta 1933ko ekainaren leian inauguratu zuten.

Sendategia aldundiarena zen, baina tuberkulosiaren aurkako Batzorde Probintzialaren kontrola izan zuen. Estatuaren, aldundiaren eta inguruko udalen artean finantzatzen zuten: erakunde bakoitzak 27,60 pezetako ekarpena egiten zuen, hiru hilean behin, paziente bakoitzeko.

Ospitaleak bi nabe zituen, gutxi gorabehera

angeluzuzenak, erdiko gorputz baten gainean artikulatuak.



Andazarrateko ospitalea. Atzean, mendiaren magalean, garbi ikusten dira burdin-mea bagonetetan Mollarriraino jaisteko erabiltzen zen kable-sistemako zutoinak.



Eguzki-bainuak hartu eta aire garbia arnasteko tratamenduen galeria, Gizonen pabiloia.



Donostiako erizainak, gerra zibilean, 1937.





Ezkerretik eskuinera, eserita: Luis Alzua doktorea, Abilio Vazquez praktikantea eta Esteban San Emeterio doktorea; atzean, Paulo Rekondo doktorea.



Jose Labaien doktorea, Abilio Vazquez praktikantea, Salvador Bravo doktorea eta Ama Araceli Royo.

Fatxada nagusian terrazak zeuzkan, gaixoak mendiko aire osasuntsua arnastuz bertan etzanda egoteko balio zutenak.

Sendategiak, zabaldu zutenean, 80 ohe zituen, erdi eta erdi emakume eta gizonentzat; honako pertsonala: hamabost moja mertzedario, hiru mediku, etxe barruko bi praktikante, kanpoko beste bi, zainketetarako hamar lagun eta kapilau bat: Jose Goia; eta bitarteko hauek: ebakuntza gela, X izpien gela, analisi eta kimika-biologiako laborategia, animaliekin probak egiteko gela eta abar.

XX. mendearen erdialdera arte, tuberkulosia nahiko hedatuta egon zen, eta zaila zen sendatzen. Adibidez, Pio Barojaren anaia zaharrena, Dario, tuberkulosiak jota hil zen, 24 urte zituela, 1894an. Tratamendurako ohiko gomendioen artean atsedena eta aire garbia zeuden.

#### Gaixoak ondo zainduta

Gaixoen egonaldiak, oro har, urtebete edo bi irauten zuten. 1952-53tik aurrera, medikuak

antibiotikoak erabiltzen hasi zirenetik, egonaldiak laburtu egin ziren, sei-bederatzi hilabetera. Gaixoek ohean egon behar izaten zuten 10:00ak arte, eta bazkalondoren, 13:00etatik 15:00etara arte. Atsedenaldia elikadura oparoarekin osatzen zuten. Oso ondo jaten zen bertan, erietxeko kamionetak egunero ekartzen zituen-eta Donostiatik janari freskoak. Zenbait produktu, esate baterako, esnea, babarrunak eta barazkiak, Etxebitarte baserri-tabernan erosten zituzten. Otorduetan beti izaten zen bakailao-gibel olio koilarakada bat. Aire garbiarekin, eguzkiarekin eta gela etengabe aireztatzearekin osatzen zuten tratamendua. Gainera, gaixoak ez hozteko moduan janzten ziren eta aire-korronteak saihesten zituzten.

Osasun laguntzaz gain, igandeetan musika gaualdiak antolatzen zituzten. Los Cosqueros artista ezagunak eta Hermanos Arfe *clown*-ak bertaratzen ziren tarteka. Gasometro Peñak eta Donosti Berrik ere ikuskizunak

antolatzen zituzten paziente eta senideentzat.

Manuel Aizpurua Aiako parrokoak, Aiako Ekintza Katolikoko elkarteko arduraduna zela, 1940ko eta 1950eko urteetan hainbat aldiz bisitatu zuen erietxea. Garai hartan kostaldeko herri askotako gaixoak zeuden sendategian. Urtean zehar dirua biltzen zuten herrian, Santa Ageda eta Gabonetako kantu eskean, eta antzerki saioetan, hango gaixoei laguntzeko. Herriko eriei eramandako janari eta opariak gainerakoekin partekatzen zituzten, adiskidetasun eta lagunarteko giro ederrean, hori

**ORAIN, AISIALDIRAKO  
TOKI BIHURTUTA,  
ATSEDENERAKO ETA  
JOLASERAKO LEKU  
ONA DA ANDAZARRATE**

bai, gizonak eta emakumeak erabat aparte.

**1936ko gerraren ondorioak**

Andazarrateko ospitalea ere bete-betean harrapatu zuen 1936ko gerrak. Hantxe egon zen frontea, 1936ko udan Azpeitiko Loiolan eratu zuten eusko gudarosteak hantxe eraiki zuen defentsarako lehenengo lerroa, Nafarroatik zetozen erreketeei aurre egiteko.

Belkoingo posizioa galdu ondoren, euskal gudariak Asteasu eta Zizurkilgo mendietara joan behar izan zuten. Une horretatik aurrera, Andazarrateko sendategia eta Zarate baserriko Benta bihurtu ziren operazio gune. Irailean erori zen defentsa lerro hura eta faxistak sartu ziren handik Aiara

eta baita Azpeitia aldera ere. Espainiako tropek ere ospitalean kokatu zuten beren kuartela. Gerraren ondoren, 1939tik aurrera, honela izendatu zuten: Sanatorio Antituberculoso 18 de julio de Andazarrate.

1950eko urtarrilaren 31n, etxeak su hartu zuen. Sutea galdara gelan piztuta, teilaturaino zabaldu zen denbora gutxian. Egoiliarak eta langileak onik atera ziren, baina etxeak kalte handiak izan zituen, batez ere teilatuan. 1956ko martxoan itxi egin zuten, eta gaixoak Amarako tuberkulosiaren aurkako sendategi eraiki berrira eraman zituzten.

Ospitalea itxi eta urte batzuetara, eraikinaren zati bat

auzo eskola gisa erabili zuten, inguruko baserriak urrutiti baitzeuden Asteasuko eta Aiako herriguneetatik. Maisua ere bertan bizi zen, Intsusagoiko baserriko Joxe Izagirrek eraikinaren zati batean prestatu zion bizilekuan. 1971n itxi egin zuten eskola. Hala ere, ia hogeitau urte igaro ziren 1990ean eraikina erabat eraitsi zuten arte.

2005ean, sendategiaren inaugurazioaren 79. urteurreneko jaieguna ospatu zuten, haren oroigarri, eta monolito bat ezarri zuten bertan. Andazarrate, paraje ederra, meatzarien bizileku, ospitale eta eskola! Orain aisialdirako leku bihurtuta, atsedenerako eta jolaserako toki on. ■■■



# Balea arrantza Orioren sustraietan

Orain gutxi jakin da 1980eko hamarkadan erriogan aurkitu zuten balea hezurak 800 urte dituela. Xabier Alberdi historialariaren iritziz, Orioren historia ezagutzeko "pista garrantzitsua" da aurkikuntza, erakusten duelako hiribildua sortu aurretik oriotarrak balea arrantzan jarduten zutela.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

**U**rte luzez egon da balea hezur bat herritarren bistan, Bizkarreneko etxearen atzeko aldean, Bordatxo tabernaren atzean, hain zuzen ere. Hasieran, uste zuten 1901ean harrapatutako balearekin lotura izan zezakeela, baina orain gutxi ezustekoa hartu dute udaleko ordezkari eta teknikariek, hiru hamarkadaz aire zabalean egon den hezurak 800 urte dituela jakin dutenean. Orain Turismo Bulegoan jarri dute ikusgai, beirazko kutxa batean ondo babestuta. Xabier Alberdi historialariaren iritziz, balea hezur horrek erakusten du "itsas jardueretan sustraitutako herria" izan dela Orio. "Gaur egun itsasontzi gutxi batzuk badaude ere, duela hamarkada gutxi arte itsas flota garrantzitsua zuen herriak. Arrantza izan da herriaren jarduera ekonomiko nagusia mendeetan zehar, baina garai batean oraindik ere garrantzitsuagoa zen, bertan egiten zutelako Europan beste inon egiten ez zen arrantza: balea arrantza. Horrek herri gisa garatzeko eta aurrera egiteko aukera paregabea eskaini zien oriotarrei", adierazi du.

## **Ezusteko aurkikuntza**

Balea hezurra 1980ko hamarkadan aurkitu zuten dragatze lanetan ari zirela, Bizkarreneko etxearen atzeko moila zegoen tokian. "Kofradiak diru publikoarekin dragak egiten zituen nabigazio kanala garbitzeko, eta 1980an, kofradiatik zubira arteko moila bazterra dragatzen hasi ziren. Beste hainbatetan bezala, errioga begiratzen ari ginela, konturatu nintzen hondeatzaileak lohiarekin batera tamaina handiko zerbait atera zuela uretatik. Ni une hartan zinegotzia



nintzen udalean, eta gelditzeko eskatu nion langileari, balea hezurra zela iruditu baitzitzaidan", gogoratu du Iñaki Agotek.

Handik bi egunera, Donostiako Aquariumeko zuzendari zen Jose Manuel Sustetari hots egin zion Agotek aurkikuntzaren berri emanez, eta ikusi orduko baieztatu zion balea hezurra zela. "Orduan, hondartza ingurutik arroka bat hartu genuen eta haren gainean jarri genuen hezurra. Anaiak Ur-lan izeneko tailerra zuen garai hartan, eta aingura bat egiteko eskatu nion, eta eskultura gisa jarri genuen, Bizkarraneko etxearen atzean, hezurra topatu zen pare hartan".

Gaia sakonago ezagutzeko Selma Huxley historialari entzutetsua ere ekarri zuen Agotek Oriora. "Huxleyk ikerketa sakona egin zuen euskaldunen balea arrantzaren inguruan, eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kide izendatu zuten. Hala, gaiaren inguruko hitzaldia ematera ekarri genuen Oriora, Leunda Zinemara. Bete egin zen aretoa; arrantzale zaharrak ere interesatu ziren gaiaz. Gaurko egunean ez lirakeke joango halako hitzaldi bat entzuterara, baina orduan joan ziren. Huxleyk hitzaldia bukatu zuenean, arraun artean eraman genuen hezurra Bizkarraneko etxearen atzean zegoen lorategitxora. Plaka bat jarri genion, euskaraz. Urte luzez egon zen bertan", adierazi du Agotek.

### Balea hezurra kaltetuta

Orain urte gutxi plaza ingurua eraberritzeko lanak abiatu zituztenean, baina, balea hezurra erretiratu egin zuen udalak. Pilar Azurmendi Orioko Udaleko arkitektoak azaldu duenez, hasieran, hezurra udal brigadako biltegian gordetzea zen asmoa. "Baina galdu egin zitekeela iruditu zitzaigun, eta udaleko bulego teknikora ekarri genuen. Oso kaltetuta zegoen: zomorro eta intsektu piloa ateratzen zitzaizkion barrendik eta desegin ere egiten zen. Hori dela eta, Irungo gordailuko errestituzio arkeologikoko tailerrarekin harremanetan jarri ginen. Bertan lan egiten du Giorgio Studer berreskuratzaileak, eta berak proposatu zigun errestituzioa eta datatzea, noizkoa zen jakiteko". Suediako Uppsalako Unibertsitatera bidali zuten datazioa egiteko, eta jakin zen balea hezurak 800 urte inguru zituela. "Mota horretako datazioak bi metodo bidez egiten dira: isotopo bidez eta karbono 14 metodo bidez. Kasu honetan bi datazioetan emaitza antzekoa eman zuen, alegia, hezurak 740-800 urte inguru zituela. Studerrek esan zigun zenbat urte zituen jakinda eta azken hamarkadetan kalean egon zela kontuan hartuta, ulergarria zela horren narriatuta egotea".



Iñaki Agote.



Xabier Alberdi.

## **HIRIBILDUA SORTU BAINO EHUN URTE LEHENAGO, ORIOARRAK BALEATAN ARITZEN ZIREN**

## **ORAIN DELA 800 URTE "USTE DENA BAINO GIZARTE ANTOLAKETA KONPLXUAGOA" ZUTEN ORIOARRAK**

Errestaurazioa bukatu zutenean, kalean ez uztea gomendatu zioten udalari, "balioa duelako eta kaltetu egingo litzatekeelako". Horregatik, Turismo Bulegoan jarri dute beirazko kutxa batean, jendeak ikus dezan eta ondo kontserbatua egon dadin. "Uretan egon zen bitartean hobeto kontserbatu zen, baina azken hogeita hamar urteetan, kalean, eguraldi aldaketekin eta kutsadurarekin, asko hondatu da. Orain, berriz, beirazko kutxa batean jarri dugu, argi izpietatik babesteko eta tenperatura eta egoera egonkor batean mantentzeko".

Iñaki Agote pozarren dago balea hezurrari merezi duen garrantzia eman zaiolako: "Ikaragarritzko aurkikuntza da, hezur horren bitartez ezagutu dezakegulako Orioren historia. Izan ere, hezurrak adierazten du mende askotan zehar balea arrantzan jardun zutela oriotarrek. Hezura aurkitu genuenean, bateren batek pentsatuko zuen txorakeriatan nebilela, baina, azkenean, denborak arrazoia eman dit".

### **Balea arrantzaren garrantzia**

Oriokoa ez da inguru honetan aurkitu den balea hezur zaharrena. Xabier Alberdi historialariaren esanetan, datatu diren balea hezur zaharrenak Getarian aurkitu ziren, eta IX. edo X. mendekoak dira. "Nahiko ohikoa izaten da portu inguruetan egiten diren indusketetan balea hezurak agertzea. Hondarribian, Donostian eta Zumaian ere topatu izan dira, baina ohikoa ez dena da hezur horiek datatzea". Uste du herriaren historia ezagutzeko aurkikuntza garrantzitsua dela 1980eko hamarkadan aurkitutako balea hezura, eta horri esker herriaren sustraiak hobeto ezagutu daitezkeela. "Material horrek esaten digu hiribildua sortu baino ehun urte lehenago, dagoeneko oriotarrak balea arrantzan aritzen zirela". Norbaitek pentsa dezake ohikoa zela, baina Alberdik argitu du garai hartan "Europar baleatan euskaldunak bakarrik" aritzen zirela, eta horrek "diru sarrera garrantzitsuak" ekartzen zizkiela. "Hain zuzen ere, horrek ahalbidetu zuen hiribildu izaera eskuratzeko egin behar ziren kudeaketa eta gastuei aurre egiteko baliabideak eskura izatea".

Animalia horren arrantza jarduera ekonomiko garrantzitsua zen, eta eskatzen zuen gizarte eta ekonomia antolaketa bat. "Bale bakarretik 40.000 litro olio atera zitezkeen, eta hori saldu egiten zuten. Beraz, merkataritza harremanak garatu behar izaten ziren, olio hori kanpoan saltzeko. Horrez gain, baleak harrapatzeko lagun talde handiak eta baliabideak ere behar izaten ziren, eta horretarako antolaketa eta ekonomiaren dibertsifikazioa ezinbestekoak ziren; baleak arrantzatzeko ontziak egin behar ziren, eta horiek egin ahal izateko ontzigitza eta burdingintza garatuta izatea ere behar-beharrezkoa zen, baita sokagintza, oihalgintza eta beste hainbat jarduera ekonomiko ere. Horrez gain, antolaketa enpresariala ere inportantea zen, kontratatu behar zirelako arrantzaleak, arpoilariak...". Hortaz, Alberdik uste du duela zortzi mende Orion bizi ziren herritarrek "uste dena baino gizarte antolaketa konplexuagoa" zutela. Gainera, jarduera ekonomiko horri esker etekinak izaten zituzten arrantzaleak, eta ordaintzen zituzten zerpei esker eraiki ahal izaten zuten, besteak beste, eliza. "Garai hartan eliza udalaren atal bat zen, eta oriotarrek ordaintzen zituzten zergen

zati bat bideratzen zen eliza eraikitzeko eta beste hainbat beharrei erantzuteko".

Gizarte antolaketa horren beste adierazleetako bat kofradia zen. "Arrantzaleen interesak babesteko sortu ziren kofradiak, eta arrantzaleek beren irabazien zati bat kofradiara bideratzen zuten. Orioko arrantzaleen kofradia XVI. mende hasieran erakundetu zen, elizaren babesean, baina hiribilduarekin gertatzen den bezala, horrek ez du esan nahi lehenagotik ez zegoenik. Hasieran, arrantzaleen anaidia zen, hau da, jarduera berean zebiltzanak biltzen zituen idatzi edo legeztatu gabeko erakunde bat, eta seguruenik, hiribildua sortu aurrekoa izango zen hori ere".

Bederatzi mendetan zehar aritu ziren euskaldunak balea arrantzan, XVIII. mendean itsas jarduerari eta ekonomiarri dagokionez aldaketa garrantzitsuak gertatu eta gainbeheran hasi zen arte. "Erdi Aroko dokumentazioa oso eskasa da, baina badakigu garai hartan inguruko lurraldeetara joaten zirela euskal arrantzaleak baleatara —Galiziara, Islandiara eta Ingalaterrara, esaterako— eta haien artean baziren oriotarrak ere. Ondoren, ozeanoa zeharkatu eta Terranovara joaten hasi ziren. Bertan aurkitu diren aipamenik zaharrenak XV. mende hasierakoak dira. Indarrean dagoen hipotesia da, seguruenik, hasieran bakailaotara joan zirela euskaldunak Terranovara, eta bertan zegoen balea pila ikusita, baleak arrantzatzen hasi zirela. Dena den, horri erantzunak arkeologiak eman beharko dizkio, bertan egindako indusketetan aztarnak topatzen ari diren heinean". ■

★ **IZARRA ELEKTROGAILUAK** Tien21

**URTE OSOAN ZUENTZAKO  
ESKAINZA BEREZIAK DITUGU**

*Zorionak  
eta Urte Berri On*

**Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa) · izarraelectrodomesticos@gmail.com**



# "Osagarritasunaren aldekoa naiz"

## GARBIÑE LARREA

'SENDABELARREK DIOTENA'  
LIBURUAREN EGILEA

Duela aste batzuk Garbiñe Larrea Orion izan zen *Sendabelarre* *diotena* liburua herritarren aurrean aurkezten. **45 landarez hitz egiten duzu liburuan. Horietako zein nabarmenduko zenituzke negu garaiko ondoez ohikoenei aurre egiteko?**

Plantain-belarra, eztul-belarra, birika-belarra, malba, intsusaren lorea eta ezkaia oso gomendagarriak dira urte sasoi honetarako. Arnasbideetako gaitzak tratatzeko onak dira, eta udazken zein neguan izan ohi ditugun katarro, gripe eta eztula tratatzeko balio digute. Ezintasuna biriketetan edo bronkioetan badaukagu, eztul-belarra, malba eta plantain-belarra nahastu eta egunean bizpahiru infusio otordu ondoren hartzea ona litzateke, hirurak lehortuta eta kopuru berean nahastuta. Malba eztarriko narritadurak eta minak tratatzeko ona da, baita urdailekoak baretzeko ere. Hutsik har daiteke, baina baita aurretik aipatu ditugun beste hiru horietako batekin nahastuta ere. Intsusaz, esan ohi dut botika oso bat osatu genezakeela intsusatik abiatuta. Bere loreak ezkaiarekin nahastu eta infusiotan hartuta, asko baretzen ditu eztula eta eztarriko mina, eta mukiak kanporatzeko ere egokia da.



Gero, erramua eta oreganoa bezalako sendabelar ahaztuxeak dauzkagu, askok sukaldarako erabiltzen dituztenak. Nola azken urteotan kanpotik ekarritako sendabelarrak famatzen eta lehenesten ditugun, artemisia esaterako, badirudi hemen ez daukagula infekzioetarako sendabelar egokirik. Biak lehortu eta kopuru berean nahastuta, bikainak dira arnas zein digestio aparatuko ezintasunetarako. Niri bi horiek ezkaiarekin batera nahastu eta otorduen ondoren hartzea gustatzen zait, digestioa egiten laguntzen duelako, baita gorputza berotzen eta arnasbideak garbi mantentzen ere.

Berbena eta pasmo-belarra bezalako sendabelar boteretsuak ere baditugu egoera larriagoak tratatzeko, baina ez dira edozeinek eta edozein modutan hartzekoak.

## Gomendagarria iruditzen zaizu herritarrek sendabelarren inguruan gutxieneko ezagutza izatea?

Osasunaren inguruan gutxieneko ezagutza izatea litzateke gomendagarria, eta hori, batez ere, elikadura eta bizitza estilo egoki baten bidez egin beharko litzateke. Izan ere, sendabelarrak egoera puntualetan eta beharra daukagunean erabili behar genituzke. Gutxieneko ezagutza duenak egunerokotasunean sortzen diren hainbat arazo (zauriak, kolpeak...) tratatzen jakingo du, eta hori oso erabilgarria eta interesgarria da. Gero, gaitz jakinetarako joera badugu (hezurretakoak adibidez) eta horiei aurre egiteko zein sendabelar eta nola erabili baldin badakigu, balio handikoa izango zaigu, horrek norberari autonomia ematen diolako.

## Botikak sendabelarrekin ordezkatu daitezkeela iruditzen zaizu, ala elkarren osagarri behar dutela?

Ni osagarritasunaren aldekoa naiz, baina posible denean bakarrik; ezin denean, amore eman behar da eta botika hartu. Hainbat botika ezin dira ordezkatu; adibidez, diabetesa sendatzeko belarrik ez dago, baina gaixo horiek izan ohi dituzten zirkulazio arazoak hobetzeko sendabelarrak erabili ditzakegu. Elkarren osagarri izatea posible dela uste dut, botika eta sendabelarra egoki uztartuta, sinergia ona eginez. ■■■

# Hitzez ekiteko garaia



**TESTUA:** ANE GURRUTXAGA ROTETA

Honezkero jakingo duzue, Euskaraldiaren hirugarren edizioa egin da azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Baina, zertarako balio du Euskaraldiak? Ez al dugu, bada, egunero, urteko 365 egunetan, euskaraz hitz egiten? Bai, gutxi batzuek bai. Hala ere, ez pentsa aukera hori euskal herritar guztiek daukatenik.

Kontuan izan euskaldun denok ez garela gune euskaldunetan bizi; gutxi daukate, oriotarrok, konparazio batera, daukagun zortea, gure hizkuntzan urte guztian bizitzeko. Noiz ohartu nintzen horretaz? Duela urte askotxo.

19 urterekin lehenengo aldiz gaztelania hutseko ikasketak egitea suertatu zitzaizkidan konturatu nintzen egoeraz. Nire gune euskaldunetik urrundu nintzen lehenengo aldia zen, eta gehienekin gaztelaniaz hitz egin beharra zegoen, ez neukan beste aukerik komunikatu nahi banuen. Euskaraz ez zekien ikaskide batekin izandako hizketaldia da ondoren azalduko dudana. Bistan denez, nire jarioa ez zen oparoena;

berehala ohartu zen lagun hori. Honela esan zidan: "*¿Tú que hablas? ¿El %50 en euskara y el otro %50 en castellano?*" Eta nire erantzuna hau izan zen, hitzez hitz: "*No, el 95% en euskara y el 5% en erdara, porque ahora mismo estoy hablando contigo*". Oreretako mutil hark ez zuen uste %95 euskaraz bizitzeko aukera hori izan zitekeenik ere; horrek harritu ninduen gehien.

Gogoan dut, era berean, Oribazarreko kanpalekuan begirale lanean nenbilela, Gasteizko haur bati entzun niona. Donostiara trenez gindoazen egun pasa, eta honela esan zuen mutiko hark harridura aurpegia jarrita: "Hemen haur eta zaharrek euskaraz hitz egiten dute!". Berak gaztelaniaz esan zuen. Orduan ohartu nintzen niretzat ohikoa zena ume harentzat, behinik behin, ez zela.

Gasteizeraino joan gabe, probintziatik atera gabe ere, egoera bera aurki dezakegu lasai asko. Esate baterako, gerturago geratuta, Irunen. Han, Euskaraldian jendea gehiago animatzen da hitz

egitera. Izan ere, urtean zehar ausartzen ez direnek ere lehenengo hitza euskaraz egiteko aukera gehiago dituzte aurrekoak entzuteko prest daudela jakinda. *Belarriprest* edo *ahobizi* txapa paparrean ikusiz gero, badakite: "Aurreko bizilagun, dendari edo ezagun/ ezezagun honekin nire hizkuntza praktikan jar dezaket!". Izan ere, irundar askok ez dakite euren ingurukoek ulertuko dieten edo, gutxienez, bi hitz euskaraz egiteko gai diren ere. Euskaraldiak, ordea, horretarako aukera ematen die.

Horrekin guztiarekin, zer argitu nahi dut? Euskaraldia euskal hiztunak berreskuratu edo hizkuntza ohiturak aldatzeko garaia dela. Lehen aipatu dudan moduan, gure esku ere badago ausartzen ez diren horiei bultzada ematea. Apustu egingo nuke, Orion ere bultzada jaso nahi duen norbait egongo dela. Tira dezagun sokatik atrebitzen ez diren horiek erakartzeko. Lagun diezaiegun guk adina aukera ez duten horiei! ■■■

bertako

igogailuak | ascensores

## -REKIN BAI!

GIPUZKOA

943 903 450

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari


www.bertako.eus



**Joan-etorria** Horra tren: goian badoa, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.




**Bakoitzari berea** Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.



**Handienetik txikienera**

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienerari 8 emanaz.

**Sudokua**




Trenari BULTZI ere esaten zitaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.





## Itzala

Ui... Trena galduko duela ematen du, baina zein da bere itzal zuzena?



## Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marraztuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkererantz doa. 2) Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.

**Soluzioak ikusteko:**  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

IRAGARKI SAILKATUAK

**ALOKAIRUA**

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Tel. 690 27 28 42.

Pisua partekatzeko prest nago, alokairu kontratuarekin. Seriotasuna eskatzen dut. Tel. 666 62 22 51.

Euskal Herrira euskara ikastera etorri naizen irakasle madrildarra naiz. Negu parterako pisua alokatuko nuke Orion, niretzat bakarrik. Pertsona arduratsua naiz. Harremanetarako: 686 82 90 36 (Patricia)

**LAN BILA**

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Tel. 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Tel. 695 37 82 60 Estrella Reyes.

Emakume arduratsua naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak egiteko prest nago, baita adinekoak zaintzeko ere, egunez zein gauez, barneko zein kanpoko lan-

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com).  
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

gile bezala. Jatetxe batean ere lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia dut eta horretarako beharrezko titulua dut. Tel. 666 62 22 51.

Adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen emakumea naiz, eta berehala lanean hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa dut, eta sei urteko esperientzia zaintza lanetan: jaten ematen, medikazioak, higieena, postura eta fardel aldaketa... Orion bizi naiz eta paper guztiak legezkatuta ditut. Tel. 631 44 12 51. Neriz.

Orion bizi den emakumea naiz eta adinekoak zaintzen lan egin nahi nuke. Titulu soziosanitarioa dut, eta eskarmentu handia du adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen. Paper guztiak legezkatuta ditut eta berehala hasi naiteke lanean; prestutasun osoa dut. Tel. 631 01 72 28. Nerlin.

Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia dut zeregin horietan eta titulu soziosanitarioa daukat. Aurretik egindako lanen erreferentzia onak ditut. Tel. 612 57 03 45.

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko emakume euskaldun eta esperientziaduna eskaintzen da. Tel. 622 93 97 39.

**LAN ESKAINTZA**

Urdairan txotx sasoiari lan eiteko serbitzari ta sukalde laguntzailea behar ditugu, Urtarriletik 14tik ,maiatzak 14ra. Harremanetan jartzeko tel. 619 40 36 91. Email-a urdaira@urdaira.com.

Gizarte Zientzietako batxilergoa egiten ari den ikasle bati errefortzu eskolak emateko pertsona baten bila gabilta. Interesa dutenek deitu hurrengo telefono zenbakira: 661 33 11 13.

**SALGAI**

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguruia ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorak salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

**BESTELAKOAK**

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatura... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	10:48 eta 23:41	04:17 eta 17:04	☉
2	12:00	05:32 eta 18:14	☉
3	00:46 eta 13:03	06:38 eta 19:12	☉
4	01:40 eta 13:56	07:34 eta 20:02	☉
5	02:25 eta 14:43	08:22 eta 20:44	☉
6	03:05 eta 15:24	09:06 eta 21:23	☉
7	03:42 eta 16:01	09:47 eta 22:00	☉
8	04:16 eta 16:37	10:26 eta 22:35	☉
9	04:50 eta 17:12	11:03 eta 23:10	☉
10	05:23 eta 17:46	11:40 eta 23:45	☉
11	05:57 eta 18:22	12:17	☉
12	06:32 eta 18:59	00:20 eta 12:55	☉
13	07:11 eta 19:41	00:57 eta 13:35	☉
14	07:55 eta 20:29	01:39 eta 14:20	☉
15	08:47 eta 21:27	02:27 eta 15:13	☉
16	09:47 eta 22:35	03:25 eta 16:14	☉
17	10:54 eta 23:42	04:31 eta 17:19	☉
18	12:00	05:38 eta 18:20	☉
19	00:41 eta 13:00	06:39 eta 19:14	☉
20	01:33 eta 13:53	07:33 eta 20:04	☉
21	02:20 eta 14:43	08:24 eta 20:50	☉
22	03:07 eta 15:32	09:13 eta 21:36	☉
23	03:53 eta 16:21	10:01 eta 22:23	☉
24	04:39 eta 17:10	10:51 eta 23:10	☉
25	05:28 eta 18:00	11:41 eta 23:59	☉
26	06:19 eta 18:52	12:32	☉
27	07:12 eta 19:46	00:49 eta 13:25	☉
28	08:07 eta 20:43	01:43 eta 14:21	☉
29	09:06 eta 21:46	02:40 eta 15:19	☉
30	10:10 eta 22:53	03:41 eta 16:22	☉
31	11:17 eta 23:59	04:48 eta 17:28	☉

FARMAZIAK-ABENDUA

**ZARAUZ**

- 17 eta 18. ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
- 1, 13 eta 31. ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
- 5, 7, 23, 29 eta 30. GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
- 2, 14, 20 eta 26. GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
- 24 eta 25. IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
- 10, 11, 16, 22 eta 28. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
- 3, 4, 6, 8, 9, 12, 15, 21 eta 27. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
- 19. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

# AGENDA

## AIA

### ABENDUAK 2, OSTIRALA

**Hitzaldia:** *Ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarriko aukerak.*

*Kultur etxean, 18:00etan.*

### ABENDUAK 4, IGANDEA

**Herri-kirol jaialdia:** 2022 Urrezko Aizkolari Kopa Eusko Label Saria, Binakako Harrijasotze Txapelketa eta Emakumeen Herri Kirol Txapelketa Lau Kiroletan.

*Probalekuan, 12:00etan.*

### ABENDUAK 12, ASTELEHENA

**Gipuzkoako Kintopeko Txapelketako Finala.**

*Probalekuan, 21:00etan.*

### ABENDUAK 31, LARUNBATA

**VI. Auto Slalom-a.**

*Ubegun Industriagunean, 10:00etan.*

**Lasterketa:** San Silbestre.

*Herrigunean, 17:00etan.*

## ORIO

### ABENDUAREN 5ETIK 8RA

**San Nikolas jaiak.**

### ABENDUAK 13, ASTEARTEA

**Hitzaldia:** 1936tik gaur arte Orion izandako giza eskubideen urraketek buruzko hitzaldia, Aranzadiko Jabi Bucesen eskutik.

*Kultur etxean, 19:00etan.*

### ABENDUAK 19, ASTELEHENA

**Ipuin-kontalaria:** Miriam Mendoza.

*Kultur etxean, 17:30ean.*

### ABENDUAK 23, OSTIRALA

**Musika Eskolako kideen**

**kontzertua:** Plazan Kantari.

*Herriko plazan, 17:00etan.*

**Ipuin-kontalaria:** Leire Zinkunegi.

*Herriko plazan, 18:00etan.*

**Emanaldia,** Harribil dantza taldearene eskutik.

*Karela kiroldegian, 22:00etan.*



### ABENDUAK 24, LARUNBATA

**Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.**

*Herriko Plazan, 18:00etan.*

### ABENDUAK 31, LARUNBATA

**Lasterketa:** San Silbestre.

*Ikastola aurrean, 11:00etan hasita.*

### URTARRILAK 2, ASTELEHENA

**Haurrentzako puzgarriak.**

*Karela kiroldegian, goizean eta arratsaldean.*

### URTARRILAK 5, OSTEGUNA

**Erregeen kabalkada.**

*Herrian barrena, 18:00etan.*

☎ 666 047 535

📷 @OSAI\_ARKITEKTURA

✉ OSASIAIN@GMAIL.COM

📍 ALMIRANTE OA KALEA 1, 1<sup>º</sup>  
20810 ORIO



## ARKITEKTURA - ERREFORMAK - BARNE DISEINUA

SUKALDE ETA KOMUN PROIEKTUAK

DISEINU ETA AURREKONTU PERTSONALIZATUAK

ALTZARI EXPOSIZIOA



# Puntua jarrita

**Bertsolaria:** Ibai eta Uhaitz Munduate.

**Doinua:** Haizeak bidali du.

**1**

**Bat eta bat ez da bi,  
baizik eta biki.**

Partekatu beharra  
hogeita hamar niki.  
Batek esan du kuku  
ta besteak kiki  
Bikiak gara eta  
gaude oso gaizki.

**2**

Jolasteko etxean  
dugu bikotea.  
Bi minututan ere  
lan dena betea.  
Haserretu ondoren  
daukagu bakea.  
Bikiak gara eta  
hau da hau zortea.

**3**

Desberdinak gara ta  
ez daukagu aita.  
Etxean badauzkagu  
hiru lau barita  
magia egiteko  
hartzen deu kanika.  
Bat gehi bat bi badira  
bat ta bat hamaika.


**Hurrengo bertsolaria:**

Ganix Sukia.

**Puntua:**

Urte berri bat dugu  
bi mila hogeita hiru.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Ibai eta Uhaitz Munduateri jarri dio puntua Amaia Iribarrek: "Bat eta bat ez da bi, baizik eta biki". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



ZORIONE MENDEZ



**ORIO**

*marea bizian*



# SAN NIKOLAS

Jaiak

2022

Programa





## 05 astelehena

### SAN NIKOLAS BEZPERA

19:00

#### **Pello eta Nikolasa erraldoiak kalejiran**

Buruhandiekin eta Danbolin Musika Eskolako txistulariekin.

20:00

#### **Festa hasierako txupinazoa**

Omendua, Maria Kristina Atorrasagasti.  
*Herriko Plaza.*

20:15

#### **Txosnaren irekiera eta herri-topa**

*Herriko Plaza.*

Ondoren,

#### **Incansables txaranga aterako da.**

23:30

#### **Gozategi musika-taldea**

*Herriko Plaza.*

01:30

#### **DJ G**

*Herriko Plaza.*

## 06 asteartea

### SAN NIKOLAS EGUNA

10:00-12:30

#### **Kamel Ziani krosa**

Benjamin, alebin eta infantilentzako krosa.

*Mendibeltz ondoko parkea.*

11:00

#### **Meza**

Salatxo abesbatzarekin.

12:30

#### **Dantzari txikien sueltoko txapelketa**

Antolatzailea: Harribil dantza-taldea.  
*Herriko Plaza.*

12:30

#### **Haurren mailako dardo-txapelketa**

*Bikamiota.*

13:30

#### **Elektrotxaranga**

*Herriko Plazatik.*

14:30

#### **Babarrun-jana herrikoia**

*Pilotalekua.*

16:00

#### **Haurren tailerrak**

Ekarri kamiseta zuria.

16:00

#### **Andoni Ollokiegiren emanaldia Pilotalekua.**

17:30

#### **Elektrotxaranga**

*Pilotalekutik.*

18:00

#### **Helduen mailako dardo-txapelketa**

*Bikamiota.*

18:00

#### **Pello eta Nikolasa erraldoiak kalejiran**

Buruhandiekin eta Danbolin Musika Eskolako txistulariekin.

22:00

#### **Bertso-saioa**

Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea: Unai Manterola.  
*Kiroldegia.*

21:00-03:30

#### **Kontzertuak**

Shangai Qiutian, Ithaka, Willis Drummond eta DJ Txankleta.  
*Herriko Plaza.*

## 07 asteazkena

### SAN NIKOLAS BIGARRENA

10:00-13:00

#### Jubilatuen hamaiketakoa

Zaharraren Babeslekua.

11:00-13:30

#### Belaunaldien arteko mahai-jolasak

Antolatzailea: Orioko Herri Ikastola.  
Herriko Plaza.

15:00-18:00

#### Puzgarriak

Pilotalekua.

18:00

#### Pello eta Nikolasa erraldoiak kalejiran

Buruhandiekin eta Danbolin Musika Eskolako txistulariekin.

22:30-02:30

#### Erromeria

Fan&Go taldea.  
Herriko Plaza.

## 08 osteguna

10:00-14:00

#### 3x3 saskibaloi-festa solidarioa

LH3tik DBH2ra arteko gazteentzat.  
Antolatzailea: Zast taldea eta Orioko Herri Ikastola.  
Kiroldegia.

16:00-18:00

#### Haurren herri-kirolak

Antolatzailea: Ubera guraso-elkartea.

Ondoren, txokolate beroa banatuko da.

Herriko Plaza.

17:00

#### Imanol Iburguren 1. pilota-memorialaren finalak

Pilotalekua.

18:00

#### Elite mailako esku-pilota jaialdia

Salaberria-Albeniz I vs Odriozola-Alonso eta Arteaga II-Aranalde vs Orbegozo-Erasun.  
Pilotalekua.

18:00

#### Pello eta Nikolasa erraldoiak kalejiran

Buruhandiekin eta Danbolin Musika Eskolako txistulariekin.

19:30

#### Kontzertua

Puro Relajo taldea.  
Herriko Plaza.



\* Erraldoien eta buruhandien ibilbidea: Kultur Etxetik hasita, Eusko Gudarien kalea errotondaraino, Arrantzale kalea ikastolaraino, Abeslari kalea, Eusko Gudarien kalea Herriko Plazaraino eta kultur etxean bukatu.

\*\* Barrakak ikastolako eremuan egongo dira, 11:00 – 24:00 ordutegian.

**Kepa Loidi**  
*harategia-urdatategia*  
**24 orduz harategi banagailua**  
 Pelotari kalea, 1 · Orio · © 943-83 25 65  
 www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com

**kutixi**  
 kafetegia  
 Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

**SU KIA**  
 TABERNA · JATETXEA  
 Eguneko menua  
 Asteburuetakoa  
 Oilaskoak eramateko  
 Ogitartekoak  
 Plater konbinatuak  
 Terraza ederra  
 (alboan umeentzako parkea)  
 Abaromendi 38, behea 1  
 ORIO · 943-89 21 29

**Baraka**  
 taberna  
 Aita Lertxundi, 23 · ORIO  
 943-54 37 24 ·  

**Gosariak 07:00etatik aurrera**  
 Pintxoak, bokatak, entsaladak,  
 hanburesak, eguneko platerak...  
 2 terraza ditugu. **Gaueko giroa ere bai.**  
**Ligako kirol guztiak ikusgai** (6 pantaila)









**OPARI TXARTELA**

**BODEGA KATXIÑA**

*Equberri goxo-goxoak opa dizkizuegu*

Ortzaika, 20 · ORIO  
 943-58 01 66 · 606 36 76 93  
 www.bodegakatxina.com ·  





# IZAN KA IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO  
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

**KARKARA**

LAGUNTZAILEA:



Gizuzokoak Foru Aldundia

